

Gazteria eta migrazio- mugimenduak Nafarroa 2026

Bizileku-mugikortasunaren,
identitateen eta kulturarte-
bizikidetzaren ibilbideak

Gazteria eta migrazio-mugimenduak Nafarroa 2026

Bizileku-mugikortasunaren,
identitateen eta kulturarteko
bizikidetzaren ibilbideak

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Instituto
Navarro de
la Juventud



Nafarroako
Gazteriaren
Institutua

© Nafarroako Gobernua (Nafarroako Gazteriaren Institutua)

Ikerlana egin duen enpresa: LANALDEN

Lehenengo argitalpena: 2026ko martxo

Diseinua eta maketazioa: Ana García Senosiáin

Inprenta: Rodona

LG NA 516-2026

Argitalpen honen edukiaren erreproduzizio partzial edo erabatekoa baimenduta dago,
iturriaren aipua eginez.

Gazteen migrazio-prozesuez ari garenean, adorea, ziurgabetasuna eta erresistentzia-ahalmena nabarmenak dira gazte horien bizitzan. Ez da kontu arina; migrazio-prozesu bakoitzean erabaki zailak, agur mingotsak eta bide garratzak daude; izan ere, familiagandik urruntzen dira, ohiko lekuekiko harremana galtzen dute, eta berritik hasi behar dute erabat arrotza den testuinguru batean. Halaber, itxaropenak bultzatzen ditu erabaki horiek hartzera. Etorkizun hobe, bizitza duin eta aukera, eskubide eta horizonte berrien bila migratzen dute.

Gazteek migratzen dutenean, gainera, dena dute eraikitzeko: nortasuna, harremanak eta proiektuak. Eta ez da erraza hori eraikitzea zureak ez diren kultura, hizkuntza eta erreferentzia batzuetan murgilduta, nahiz eta hori aberastasun pertsonal eta kolektiboaren iturria izan daitekeen eta zer nolako gizartea garen ulertzeko modua zabaldu.

Ezbairik gabe, gaur egungo gizartea askotarikoa da, eta datorkiguna are askotarikoagoa izanen da. Askotarikotasuna agerikoa da ikasgeletan, auzoetan, aisiarako espazioetan. Elkarrekin bizitzea ez da elkarren ondoan bizitzea. Elkarbizitzak komunitatea sortzea eskatzen du, elkar onartzea berdintasunetik, eta sinestea pluraltasuna aberasgarria dela.

Hala ere, gazte migratzaile askok aurreiritziak, bazterkeria eta oztopoak pairatzen dituzte, eta aukerak murrizten zaizkie. Ezin dugu ez ikusiarena egin. Inoiz baino garrantzitsuagoa da batera begiratzea, eskubideak eta duintasuna defendatzea, eta askotarikotasuna aitortzea.

Gazte migratzaileak gure gizartearen oraina eta etorkizuna dira. Komunitate zintzo, inklusibo eta irekiak sortu behar ditugu, pertsona bakoitzak bere bizilekuaren oinarritzko parte dela sentitu ahal izateko.


Begoña Alfaro García
Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako,
Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria

Gazteria eta migrazio-mugimenduak

Nafarroa 2026

Emaitzen txostena

1. Helburuak eta metodologia	7
2. Elkarrizketatutako nafar gazteen profila	11
3. Migrazioak eta familia biografiak	17
3.1. Familien migrazio biografiak	17
3.2. Migrazio biografia pertsonalak	22
3.3. Lekualdatzeko arrazoiak eta horren eragina	29
4. Aniztasuna eta gazteen identitateak	35
4.1. Hizkuntza aniztasuna	35
4.2. Erlijio aniztasuna	42
4.3. Kultura aniztasuna	46
4.4. Gizarte taldeekiko identifikazioa	50
5. Kulturarteko bizikidetzak	53
5.1. Kulturarteko aniztasuna, bizikidetzak eta gizarte harremanak	53
5.2. Kulturarteko bizikidetzan den erantzukizunari buruzko pertzepzioa eta espektatibak	60
6. Bizikidetzaren mugak eta tentsioak: diskriminazio esperientziak eta erantzunak	65
7. Aktibismoa eta konpromiso soziala	77
Azken gogoetak	87
Glosarioa	90



1 Helburuak eta metodologia

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, bere azterlan monografikoen seriearen baitan, gazteriari eta migrazioei buruzko azterketa sakona egin du oraingoan, “Gaztedia eta migrazioak Nafarroan” azterlan honen bidez.

Mugikortasuna, bere forma guztietan, gazte asko eta askoren bizitzan eragiten duen bizipena da gaur egun. Norberaren nahiz familiaren migrazioek hainbat alorretan eragiten dute, hala nola pertsonen biografien eraikuntzan, bizi ibilbideetan eta kultura identitateetan, hitz egiten diren hizkuntzetan, eta gero eta askotari-koagoa den gizartean ehuntzen diren bizikidetzak moduetan.

Azterlan honetan, Nafarroako gazteek migrazio prozesuei lotuta dituzten bizipenak aztertu dira, horiek bultzatzen dituzten esperientziak, eragiten dituzten inpaktuak, eta horien ondorio diren kide-tasun, bizikidetzak eta identitate dinamikak kontuan hartuta. Horrez gain, dis-

kriminazioa, gorroto diskurtsoa, eta berdintasunaren eta kulturarteko bizikidetzaren defentsan sortzen diren aktibismoko praktikak gazteek nola hautematen dituzten aztertu da.

Lanaren xedea da informazio eguneratua ematea, gazteen migrazio errealitatea ulertzen lagundu dezan, eta oinarriztat hartu ahal izan dadin Nafarroan inklusioa, aniztasunaren onarpena eta gizarte kohesioa sustatuko dituzten politika publikoak diseinatzean.

Beraz, 2025eko Inkesta Monografikoaren helburu nagusia izan da erradiografia eguneratua ematea, gazteek migrazioen eta mugikortasun geografikoaren, kultura identitatearen eta kulturarteko bizikidetzaren inguruan dituzten bizipenak, pertzepzioak eta jarrerak aztertuz, betiere Nafarroako Gazteriaren Institutuaren Zuzendaritzak zehaztutako estrategien ildotik.

Helburu espezifikoak

Hona hemen ikerketa honen helburu nagusiari erantzuteko landu diren helburu espezifikoak:

- † Nafarroako gazteen migrazio aurrerariak aztertzea, baita beraiek eta beraien familiek bizi izan dituzten bizileku aldaketak ere.
- † Lekualdatzeetan eragin duten faktoreak eta arrazoiak identifikatzea, eta prozesu horiek gazte horien bizitzako hainbat eremutan zer eragin izan duten ezagutzea, hala nola hezkuntzan, lanean, emozioetan, harremanetan eta identitatearen arloan.
- † Gazteen artean dagoen hizkuntza, kultura eta erlijio aniztasuna aztertzea, bai eta horrek duen lotura kidesun sentimenduarekin eta askotariko identitateekin.
- † Diskriminazioko, tratu desberdineko edo gutxiespeneko esperientziak eta horien pertzepzioak ezagutzea, bai eta horiei aurre egiteko eta erresilientziarako garatutako estrategiak ezagutzea ere.
- † Kulturarteko bizikidetzari, aniztasunaren onarpenari eta aukera berdintasunerako politikei dagokienez zer jarrera diren aztertzea.
- † Justiziaren, inklusioaren eta bizikidetzaren arloetan, gazteek nola parte hartzen duten, zer konpromiso sozial agertzen duten eta aktibismoa nola gauzatzen duten aztertzea.

Planteamendu metodologikoa

Ikertzeko teknika

CATI (*Computer Aided Telephone Interview*), sistemarekin egindako telefono bidezko elkarrizketak, galdera itxietan oinarritzen den eta zenbait erantzun eta balorazio eskala dituen galdetegi bat erabiliz.

Xede taldea

Azterlanaren xede den unibertsoa Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren 16 eta 30 urte bitarteko gazteak dira.

Estatistikaren lagina eta errorea

701 elkarrizketa egin zaizkie gazte nafarrei, eta horrek aukera emanen digu kolektibo osoaren gaineko esti-

mazioak egiteko, $e = \pm 3,7\%$ errore tar-tearekin (%95,5eko konfiantza maila lortzeko).

Laginaren banaketa

Lagina zehazteko, ausazko lagin-keta estratifikatu bat erabili genuen, elkarrizketatutako gazteen bizitegi eremua, adin taldea eta sexua aldagaizat hartuta. Estratuei esleipen ez-proporzionala irizpidea aplikatu zitzaizen, haietako bakoitzeko gutxieneko adierazgarritasun estatistikoa lortzeko. Lagina hautatzeko, Nas-tat institutuak Nafarroako gazteei buruz emandako datu-basea hartu zen oinarri.

Nafarroako gazteak, eremuaren, sexuaren eta adinaren arabera*:

	16-20 urte		21-25 urte		26-30 urte		Guztira
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	
Iparraldea	1.852	1.723	1.700	1.531	1.663	1.451	9.920
Iruña	11.003	10.551	10.396	10.258	10.200	9.894	62.302
Erdialdea	1.777	1.620	1.844	1.687	1.697	1.587	10.212
Hegoaldea/ Erribera	4.019	3.661	4.136	3.915	4.032	3.805	23.568
Guztira	18.651	17.555	18.076	17.391	17.592	16.737	106.002

Egileak egina. Iturria: EIN, Errolda Jarraituaren Estatistika, 2022/01/01.

Laginketaren xehetasunak:

Hona hemen Nafarroako gazteei esleipen ez-proportzionala irizpidearekin egindako laginketa.

	16-20 urte		21-25 urte		26-30 urte		Guztira
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	
Iparraldea	4	4	8	8	5	6	35
Iruña	71	61	68	77	90	85	452
Erdialdea	9	9	12	11	10	14	65
Hegoaldea/ Erribera	28	16	21	23	27	34	149
Guztira	112	90	109	119	132	139	701

Laginketaren xehetasun haztatua:

Emaitzak aztertzean, estratifikaziorako erabilitako aldagaietan egoten ahal ziren desbideratzeak zuzendu dira. Horretarako, datuak haztatu dira, lagina gazteen benetako banaketara egokitzeke EINen estimazioen arabera (Errolda Jarraituaren Estatistika, 2022ko urtarrilaren 1a). Hona hemen haztapan horren emaitza:

	16-20 urte		21-25 urte		26-30 urte		Guztira
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	
Iparraldea	12	11	11	10	11	10	66
Iruña	72	70	69	68	68	65	412
Erdialdea	12	11	12	11	11	11	67
Hegoaldea / Erribera	27	24	27	26	27	25	156
Guztira	123	116	119	115	116	111	701

Landa-lana egiteko datak:

Landa-lana 2025eko irailaren 29tik urriaren 31ra bitartean egin zen.


2 Elkarrizketatutako nafar gazteen profila

Jarraian, gazteriari eta migrazioei buruzko azterlan monografikoan parte hartu duten gazteen ezaugarri soziodemografiko nagusiak aurkeztuko ditugu:

- ✦ **Sexua eta adina.** Inkestatuen %51,2 gizonak dira, eta %48,8 emakumeak. Batez besteko adina 23 urte da. Adin taldeei dagokiernez, %34,1ek 16 eta 20 urte artean ditu; %33,5ek, 21 eta 25 urte artean; eta %32,4k, 26 eta 30 urte artean.
- ✦ **Jaioterria.** Parte-hartzaile gehienak, %68,3, Nafarroako Foru Komunitatean jaiotakoak dira. %7,8 beste autonomia-erkidego batzuetakoak dira, eta %23,9 atzerrian jaio ziren; azken multzo horretan, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetakoak dira nagusi (%20,3).
- ✦ **Hezkuntza maila.** Inkestatuen %40k unibertsitateko edo goi mailako lanbide heziketako ikasketak dituzte, eta horietatik %7,9k masterra edo graduondoa ere egin dute. Beste %37k erdi mailako lanbide heziketako edo batxilergoko ikasketak ditu, eta %24k hezkuntza maila baxuagoa du.
- ✦ **Lan egoera.** Laginaren erdia baino gehiago, %52, lanean ari da, eta %49k ikasten jarraitzen du. %11,4k langabezian dagoela adierazi du.
- ✦ **Erljio.** Erljio sinesmenei dagokiernez, %29k adierazi du katolikoak direla. %8,1ek beste erljio bat du, musulmana nagusiki, eta %4,6k adierazi du ebanjelikoa, protestantea edo Jehovaharen lekuko dela. Bestalde, %23,6k agnostikotzat edo ateotzat du bere burua, eta %32,8k dio ez duela erlijiorik praktikatzen edo ez duela bere burua erljio batekin lotzen.


Sexua

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Adina

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa




Jaioterria

Non jaio zara?

Iradokitako erantzuna

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa




Gaur egungo okupazioa

Gaur egun, zein egoeratan zaude?

Erantzun anitza, iradokitakoa

Oinarria: elkarriketatuen guztizkoa





Erljioa


Erljio edo sinesmen espiritualik praktikatzen duzu edo horietakoren bateko kide sentitzen zara?

Erantzun simplea, iradokitakoa


Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



- Katolikoa
- Agnostikoa, ateoak, batere ez
- Musulmana/Islama
- Beste bat



3

Migrazioak
eta familia
biografiak

3.1. Familien migrazio biografiak

Aitona-amonen jaioterria

Inkestatutako gazteen aitona-amonen jaioterria aztertuz, Nafarroako familien jatorria eta ibilbidea ulertzen ahal da, hainbat belaunalditan zehar. Abiapuntu horri esker, Nafarroako gazteen egungo errealitatea osatzen lagundu duten migrazio prozesuak testuinguruan kokatzen ahal dira.

Aitona-amonen erdiak baino gehiago (%54,8) Nafarroan jaio ziren, eta kasuen %33,4an, Espainiar estatuko beste erkidego batean jaio ziren; horrek agerian uzten ditu herrial-

de barruan historikoki izan diren barne mugimenduak. Horrez gain, aitona-amonen %8,2 Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan jaio ziren, eta %29,1 handik kanpo.

Datu horiek agerian uzten dute egungo gazte nafarrak jatorri desberdinak dituzten familietatik datozela; hala, bertako, nazioko eta atzerriko jatorriak batu dira, eta gizarte plurala ehundu da. Informazio hori lagungarria da belaunaldi berrien kultura aniztasuna testuinguruan jartzeko.

Aitona-amonen jaioterria

Non sortu ziren zure amaren eta aitaren aldeko aitatiak eta amatziak?

Iradokitako erantzuna, anitza

Oinarria: elkarrizketatuen gutzitza



%54,8
Nafarroan



%33,4
Nafarroatik kanpo,
Espainian



%8,2
EBko beste
herrialde batean



%29,1
EBtik kanpoko
herrialde batean



Gurasoen jaioterria

Belaunaldi zaharrenen jatorria non kokatzen den zehaztu ondoren, gurasoen jaioterria aztertu dugu. Bigarren mailako belaunaldi honi esker ikusten ahal da, denborak aurrera egin ahala, familien migrazio dinamikek jarraitu egin dutela, murriztu egin direla edo eraldatu egin direla; horrez gain, jatorri aniztasuna Nafarroan zenbateraino finkatu den ikusi da.

Gurasoen erdiak baino gehiago Nafarroan jaio ziren: %54,9 lehenengo gurasoaren kasuan eta %46,7 bigarren gurasoaren kasuan. Talde handi bat Espainiar estatuko beste erkidego batzuetatik dator (%11 eta %17,3, hurrenez hurren), eta, bi kasuetan, %6 inguru Europar Batasuneko beste herrialde batean jaio zen.

Bereziki nabarmena da sustraiak Europar Batasunetik kanpo dituzten familien pisua: hamar gurasotik ia

hiru (%27,8 eta %27,7) EBtik kanpoko herrialdeetan jaio ziren. Beraz, horrek agerian uzten du Nafarroan finkatuta daudela nazioarteko migrazio ibilbidea duten familiak.


Familia osoari erreparatuz gero, gazteen %63,2ren bi gurasoak Espainian jaioak dira, eta gazteen %32,8, aldiz, bi gurasoak atzerrian jaio ziren familien ondorengoak dira. Gutxiengo batek (%4k) jatorri mistoa du, hau da, guraso bat Espainian jaioa eta beste bat atzerrian jaioa.

Datu horiek erakusten dute Nafarroako gazteak gero eta askotarikoagoak eta multikulturalagoak diren inguruneetan hazten direla; hala, ingurune horietan, migrazio ibilbide desberdineko familia esperientziak partekatzen dituzte, hala nola Nafarroan jaiotako belaunaldienak eta nazioarteko familia loturak dituzten gazteenak.


Gurasoen jaioterria*Non sortu zen zure gurasoa (aita/ama)?*

Iradokitako erantzuna, sinplea

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa

**%63,2**Bi gurasoak
Espainian jaiotak**%32,8**Bi gurasoak atzerrian
jaiotak**%4**Guraso bat Espainian
jaiotak eta bestea
atzerrian jaiotak

Jaioterriaren arabera



Nafarroako gazten jaioterria

Inkestatutako gazteen jaioterria aztertuta, ondorioztatzen ahal da aurreko belaunaldietan antzemandako familia aniztasuna gaur egungo gazte nafarengan ere islatzen dela.

Gazteen bi heren baino gehiago (%68,3) Nafarroan jaioak dira, eta horrek agerian uzten du lurraldean errotuta daudela. Nolanahi ere, datuek erakusten dute migrazio jatorria duten gazteen presentzia ere finkatuta dagoela: %7,8 Espainiar estatuko beste autonomia-erkidego batean jaio zen, %3,6 Europar Bata-

suneko herrialde batean, eta %20,3 handik kanpo. Guztira, Nafarroako lau gaztetik ia bat Espainiatik kanpo jaio zen.

Bertako, nazioko eta nazioarteko jatorrien konbinazio horrek adierazten du egungo gazte nafarrak azken hamarkadetan areagotu diren mugikortasun eta finkatze prozesuen ondorio direla, eta gaur egun askotariko errealitatea osatzen dutela, kultura aniztasun handiarekin; hori, noski, Nafarroako gizartearen eraldaketaren adierazgarri da.

Nafarroako gazten jaioterria

Non sortu zinen?

Iradokitako erantzuna, anitza

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



%68,3

Nafarroan



%7,8

Nafarroatik kanpo,
Espainian



%3,6

EBko beste
herrialde
batean



%20,3

EBtik kanpoko
herrialde batean

Familia jatorrien konbinazioa

Bi gurasoen jaioterria eta gazteen jaioterria batera aztertzeak aukera ematen du familiaren osaran sakontzeko, bai eta Nafarroako gazteen artean aniztasuna belaunaldiz belaunaldi nola transmititu den sakon aztertzeko ere.

✦ **Nazioan jaiotako gurasoak dituzten familietan**, gehienak (%91) Nafarroan jaio ziren, eta %9 soilik jaio ziren Estatuko beste autonomia-erkidego batean. Talde horretan, ez da aurkitu Espainiatik kanpo jaiotako kasurik, eta horrek lurralde errotze eta jarraitutasun handiko ereduak uzten du agerian.


3 Migrazioak eta familia biografiak

- † **Bi guraso atzerritar dituzten familietan**, aldiz, seme-alaben %73 Espainiatik kanpo jaio ziren, %21 Nafarroan eta %6 beste autonomia-erkidego batean. Datu horiek adierazten dutenez, herrialdetik kanpo jaiotako gazteen lehen belaunaldi bat dago, Nafarroan errotu diren beste familia batzuekin batera.
- † **Guraso atzerritar bakarra duten familietan**, seme-alaba gehienak (%90) Nafarroan jaio dira, eta %10

Estatuko beste erkidego batean; beraz, familia mistoak Foru Komunitatean pixkanaka integratuz eta finkatuz doazela adierazten du horrek.

Azterlanaren arabera, Nafarroan asotariko familiak daude, jatorri eta ibilbide oso desberdinekoak, hala nola lurraldean errotze sendoa duten familiak eta migrazio lotura berriagoak dituzten familiak. Horiek guztiak osatzen dute egungo Nafarroako gazterien ezaugarri den gizarte mosaikoa.

Gurasoen jaioterriaren arabera



■ Nafarroan jaio ziren
 ■ Nafarroatik kanpo jaio ziren, beste autonomia-erkidego batean
 ■ Espainiatik kanpo jaio ziren

3.2. Migrazio biografia pertsonalak

Bizitegi mugikortasuna eta lurralde arteko lekualdatzeak

Emaitzek erakusten dutenez, Nafarroako gazteek askotariko bizi ibilbideak izan dituzte mugikortasunari eta bizileku aldaketei dagokienez.

Hamar gaztetik lauk (%41,7) adierazi dute ez direla inoiz etxex aldatu; hau da, udalerrri eta auzo berean bizi izan dira jaio zirenetik. Horrek, beraz, lurralde egonkortasun handia adierazten du. Nolanahi ere, gazte gehienak (%58,3) bizilekuz aldatu dira beren bizitzako uneren batean.

Gazteen %19,1 auzoz aldatu dira udalerrri beraren barruan, eta %19,9 Nafarroako beste udalerrri batera le-


kualdatu dira; horrenbestez, Foru Komunitatean bertan barne mugikortasun esanguratsua dagoela esaten ahal da. Bestalde, %18 beste autonomia-erkidego batean bizi izan da, eta %28,6 beste herrialde batera ere lekualdatu da; zifra horrek agerian uzten du Nafarroako gazteen artean nazioarteko migrazio esperientzia esanguratsua dela.

Argi geratzen da mugikortasuna Nafarroako gazte askoren bizi ibilbideen parte dela; hala, tokiko egonkortasunaren ereduak eta prestakuntzari, lanari edo familiaren migrazio historiari lotutako lekualdatzeak konbinatzen dira.

Gazteen bizitegi ibilbidea eta mugikortasun geografikoa

Zure bizitzan zehar, sortu zinenetik gaurdaino, aldatu al zara auzoz, udalerriz, autonomia-erkidegoz edo herrialdez?

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Bizitegi mugikortasuna, jaioterriaren arabera

Mugikortasuna jaioterriaren arabera aztertzean, desberdintasun argiak nabarmendu dira Nafarroan jaio direnen eta beste lurralde edo herrialde batzuetatik etorritakoen artean, eta horrek agerian uzten du jatorriak eragina duela gazteen bizi ibilbideetan eta bizitegi egonkortasunean.

Nafarroan jaiotako artean, gehienak (%59,1) ez dira inoiz udalerriz edo auzoz aldatu, tokiko errotze maila handiaren erakusgarri. Aldiz, Nafarroatik kanpo baina Espainia barruan jaio zirenei erreparatu, mugikortasuna zertxobait handiagoa da: gazteen %21,3 beste udalerriz batera joan dira, beren autonomia-erkidegoaren barruan.

Aldeak are nabarmenagoak dira Espainiatik kanpo jaiotako gazteen artean. Europar Batasuneko beste herrialde batetik etorritakoen eta EBtik kanpo jaiotako artean, hau da, nazioarteko zuzeneko migrazio esperientzia izan duten gazteen artean, proportzio handi bat gerora ere auzoz edo udalerriz aldatu da Nafarroa barruan; horrek adierazten du lurraldean pixkanaka finkatuz eta egokituz joan direla.

Oro har, emaitzek erakusten dute Nafarroako gazteen bizitegi mugikortasuna hertsiki lotuta dagoela haien jatorri geografikoarekin; hala, bertako biztanleriaren egonkortasun ereduak eta mugikortasun ibilbide konplexuagoak, nazio mailako edo nazioarteko migrazio aurrekariak dituzten gazteei dagozkienak, konbinatzen dira.

Jaioterriaren arabera

	Nafarroan jaioa	Nafarroatik kanpo jaioa, Espainian	EBko beste herrialde batean jaioa	EBtik kanpoko herrialde batean jaioa
Ez naiz aldatu, bizitza osoa egin dut udalerriz edo auzoz berean	%59,1	%13,3	%0	%1,7
Udalerriz berean bizi naiz, baina auzoz aldatu naiz	%16,1	%18,3	%43,4	%24,9
Bai, udalerriz aldatu naiz, baina autonomia-erkidego beraren baitan	%19,9	%21,3	%25,7	%18,2
Bai, beste autonomia-erkidego batera aldatu naiz	%12,1	%100,0	%7,4	%17,7
Bai, beste herrialde batera aldatu naiz	%6,3	%9,1	%100	%100
Guztira elkarrizketatuak	463	57	28	153

Bizitegi mugikortasuna: lekualdatzeen intentsitatea

Azterketaren arabera, mugikortasun erdua nahiko baxua da, eta aski homogeneoa jatorri talde desberdinen artean, baina ñabardura batzuk ditu:

† **Mugikortasun ohikoena tokian tokikoa:** lekualdatze mota ohikoena udalerrri berean auzoz aldatzea da, 1,61 lekualdatzeko batezbestekoarekin. Datu horri erreparatuta, gazteen bizitegi aldaketa gehienak hurbileko inguruneetan gertatzen direla ikusten da; horrek adierazten du mugikortasun mota horrek lotura estuagoa duela egunerokotasunarekin edo bizitzako etapekin (emantzipazioa, lan edo familia aldaketak) egiturazko migrazioekin baino.

† **Desberdintasunak jaioterriaren arabera:** Espainiatik kanpo jaiotako gazteek dute auzoz aldatutako kasuen batez besteko handiena (1,72), eta hori etxebizitza bilatzeko prozesuekin edota, iritsi berritan, bizileku den udalerrian bertan egiten diren egokitzapenekin lot daiteke. Aitzitik, Nafarroan eta beste autonomia-erkidego batean jaiotako gazteen barne mugikortasuna (1,56 eta 1,46, hurrenez hurren) zertxobait txikiagoa da.

† **Egonkortasuna udalerrien eta erkidegoen arteko mugikortasunean:** erkidego barruko lekualdatzeek (batez beste 1,30) edo erkidegoen artekoek (1,24) antzeko balioak dituzte taldeen artean; aldaketa txikiak dira, eta ez dute

desberdintasun handirik iradokitzen jatorriaren arabera.

† **Nazioarteko mugikortasun txikia:** herrialde arteko aldaketek dituzte batez besteko txikiak (1,11 guztira), eta, horrenbestez, agerian gelditzen da egonkortasun handiagoa lortzen dela behin Espainian finkatu ondoren. Bereziki, Espainiatik kanpo jaiotako gazteek mugikortasun txikiagoa dute mugikortasun mota honetan (1,06), hasierako migrazio prozesuaren ondoren egonkortasuna bilatzeko ideiarekin bat.


Laburbilduz, Nafarroako gazteen mugikortasuna tokian tokikoa da batez ere, eta, neurri txikiagoan, erkidegoen artekoa; hala, intentsitate txikiko lekualdatzeak dira, migrazioa baino bizitegi egokitzapenera bideratuta daudenak. Jaioterriaren arabera aldeak txikiak dira; nolana ere, atzerrikik etorritako gazteek joera handiagoa dute udalerrri barruan bizilekuz aldatzeko, eta Nafarroan jaiotakoek, berriz, eredu egonkorragoa dute, lurralde errotzean oinarritzen dena.

Adin tarteen arabera azterketak bizi zikloan zehar izan ohi diren bizitegi esperientzien metaketarekin koherentea den erdua erakusten du. 25-30 urteko gazteen batez besteko lekualdatze kopurua handiagoa da 16-24 urteko gazteena baino. Aldea bereziki nabarmena da udalerrri bereko auzoen artean egiten diren lekualdatzeetan (1,77 eta 1,48, hurrenez

Auzoen, udalerrien, autonomia-erkidegoen eta/edo herrialdeen arteko lekualdatzeen batez besteko kopurua

Zenbat aldiz lekualdatu zara?

Erantzun irekia. Oinarria: lekualdatzeren bat egin duten pertsonak



hurren), bai eta autonomia-erkidego bereko udalerrien artean egiten diren lekualdatzeetan ere (1,44 eta 1,18, hurrenez hurren). Adinean gora egiteaz batera mugikortasuna handitu egiten dela erakusten dute aldaketa horiek, emantzipazio prozesuekin, independentzia bilatzearekin edo lana finkatzearekin lotuta, ziurrenik.

Eragin handiagoko lekualdatzeetan —autonomia-erkidegoen artekoak edo herrialdeen artekoak—, adinaren araberrako aldeak txikiagoak dira, eta batez bestekoak oso antzekoak: 1,30 eta 1,09, hurrenez hurren, 25 urtetik

gorakoen artean, eta 1,17 eta 1,13, aldiz, gazteenen artean. Horrek adierazten du lurraldeen arteko lekualdatze handiagoetan adinak ez duela egiturazko faktoreen edo testuinguruarekin lotutako faktoreen (ikasketak, lan aukerak edo migrazio aurrekariak) besteko eragina.

Azterlanari esker adierazten ahal da adinean aurrera egin ahal gero eta joera handiagoa dagoela barne mugikortasunerako, baina betiere intentsitate txikiko esparru orokor baten baitan eta ingurune hurbileko bizitegi aldaketen lehenespenerekin.

Lehen lekualdatzearen bizi-unea

Gazteek jaio ziren udalerrria uzteko adina nabarmen aldatzen da jaioterriaren arabera, eta agerian uzten ditu mugikortasunerako bizi-une desberdinak eta zenbait lekualdatze mota. Oro har, gazteen %42,7k 11 eta 20 urte artean zituztela utzi zuten beren jatorrizko udalerrria, eta beste %34,8k urte bat eta 10 urte artean zituztela.

† **Nafarroan jaiotakoan artean**, gehienak gaztaroan irtetzen dira jaio ziren udalerritik: ia erdiak (%48,6) 11 eta 20 urte artean zituztela irten ziren, eta %30,2 urte bat eta 10 urte artean zituztela. %5,6 soilik lekualdatu zen lehenbiziko urtea bete baino lehen, eta %15,6, berriz, 20 urte bete ondoren lekualdatu ziren. Azken horrek, hain zuzen ere, emantzipazioarekin, ikasketekin edo lurralde barruko lehen lan aldaketekin lotutako mugikortasuna adierazten du, batez ere.

† **Beste autonomia-erkidego batean jaio zirenen** artean, lekualdatzea zertxobait lehenago gertatu ohi da: %42,2k urte bat eta 10 urte artean zituztela utzi zuten udalerrria, eta %33,8k 11 eta 20 urte artean zituztela. Joera horrek esan nahi du norbanakoen mugimenduak baino gehiago familia mugimenduak izan zirela, gurasoen lan arrazoiengatik edo bizitegi arrazoiengatik egindako etxe aldaketei lotuta ziurrenik.

† **Espainiatik kanpo jaiotako pertsonen** kasuan, are aniztasun

handiagoa ikusten da: %36,9k urte bat eta 10 urte bitartean zituztela utzi zuten jatorrizko udalerrria, eta %39,8k 11 eta 20 urte bitartean zituztela. Horrek adierazten du, alde batetik, haurtzaroan iritsi zirela batzuk, eta, bestetik, etapa aurreratuagoetan izandako gazteen euren edo familien migrazioak izan zirela. 20 urte baino gehiagorekin atera ziren %21,7, ziurrenik, helduaroan modu autonomoan migratu zuten gazteei lotuta egonen da.


† **Adinaren arabera, datuek belaualdien eragina berresten dute: 16 eta 24 urte bitarteko gazteetan, %43k 10 urte bete baino lehen utzi zuen bere jaioterria** —mugimendu goiztiarrak edo familiarrak adierazten ditu—; **25 eta 30 urte bitartekoan artean, berriz, lekualdatze berantiaragoak nabarmentzen dira, %33,3k 20 urte bete ondoren utzi baitzuen bere jaioterria.**

Beraz, **datuek adierazten dute gazte gehienek lurralde arteko mugikortasuna izan dutela etapa goiztiarretan edo gazte garaietan, eta jaioterriak alde handiak eragiten dituela:** Nafarroan jaiotako gazteak helduaroarako trantsizioan lekualdatu ohi dira, arrazoi pertsonalengatik, eta, aitzitik, lurraldetik kanpo jaiotako gazteek —batez ere atzerriarrek— migrazio ibilbide askotarikoagoak dituzte, familia lekualdatzeekin loturikoak nahiz nazioarteko migrazio prozesuekin loturikoak.

Jaioterria utzi zen adina

Zenbat urterekin utzi zenuen zure jaioterria?

Oinarria: udalerrri aldaketaren bat egin duten pertsonak (N=480)



Atzerrian jaiotako gazteen finkatze maila

Atzerrian jaiotako gazteen artean, Espainian bizitzen daramaten denborari dagokionez, antzera banatzen dira berriki etorritakoak eta finkatze prozesu sendoak dituztenak. Hain zuzen ere, ia erdiek (%45,5ek) 10 urte baino gehiago daramatzate herrialdean bizitzen, eta horrek integrazio maila handia eta egonaldi luzea adierazten ditu. Aldi berean, atzerrian jaiotako gazteen %29,2 azken bost urteetan iritsi dira, eta %25,3 duela sei eta hamar urte bitartean; beraz, migratzaile gazteen kolektiboa etengabe ari da berritzen.

Adinaren araberako gurutzaketak eginez, bizi zikloari lotuta espero ahal diren desberdintasunak ikusten dira. 25-30 urteko pertsonak egonaldi luzeagoak dituzte: %47,6 Espainian bizi da duela hamarkada bat baino gehiagotik, eta %32,3 duela bost urte baino gutxiagotik. Horrek bi gauza adierazten ahal ditu: batetik, finkatze


prozesuak izan dituztela, eta bestetik, helduaroan iritsi berriak direla. 16-24 urte bitartekoen artean, berriz, ehuneko handiagoa dute tarteko etapetan edo etapa goiztiarretan iritsi zirenek (%33 6 eta 10 urte bitartean, eta %24,7 5 urte baino gutxiagorekin); beraz, haurtzaroan izandako familia migrazioak nahiz hezkuntza edo lan sisteman berriki sartu direnak barne hartzen ahal ditu.

Datuek erakusten dutenez, Espainian dauden gazte atzerritarrek askotariko migrazio ibilbideak izan dituzte; hau da, alde batetik, erabat finkatuta dauden gazteak daude, eta, bestetik, iritsi berriak. Antzintasunaren eta berritzearen arteko oreka horrek kolektibo dinamikoa dela adierazten du, eraldatzen ari den kolektiboa, alde egonkor bat duena, baina, aldi berean, herrialdeko gazteen panorama eten-gabe eguneratzen duena.

Espainian bizitzen daramatzaten urteak

Zenbat urte daramazu Espainian bizitzen?

Erantzun irekia. Oinarria: Espainiatik kanpo jaio diren pertsonak (N=181)



3.3. Lekualdatzeko arrazoiak eta horren eragina

Bizilekuz aldatzeko arrazoiak

Beren bizitzan bizilekuz aldatu duten gazteen artean, ikusi da etxe aldaketak, batez ere, familien erabakiekin edo prestakuntza edo hobekuntza pertsonala lortzeko arrazoiekin lotuta daudela.

%37,8k adierazi du aldaketa familieren erabaki baten ondorio izan zela; hori da arrazoi ohikoena. Ondoren, ikasketengatik edo bizi kalitatea hobetzeko —ingurunearekin, etxebizitzarekin edo auzoko zerbitzuekin lotutako arrazoiengatik— lekualdatu zirenak aipatu behar dira (%24,5 eta %21,5, hurrenez hurren).

Halaber nabarmentzekoa da lan arrazoiengatik aldatu zirenen ehuneko


(%19,3), enplegua edo lanbide aukera hobeak bilatzearekin lotutako mugikortasuna islatzen duena. Bestalde, hauek dira eragin txikiagoa izan duten beste faktore batzuk: familia berriz elkartzea (%9,6), norberaren independentzia (%4,2) eta gatazka belikoen edo segurtasun politiko ezaren ondoriozko kausak (%3,5).

Azken batean, datu horiek nabarmentzen dute Nafarroako gazteen mugikortasun esperientzia gehienak familia, hezkuntza eta lan dinamiken ondorio izan direla; aitzitik, kanpo arrazoiengatik edo arrazoi ekonomikoengatik lekualdatzek ez dira hain ohikoak, baina bai esanguratsuak gazteen zati batentzat.

Bizilekuz aldatzeko arrazoiak

Zer dela-eta aldatu zinen bizilekuz?

Oinarria: noizbait bizilekua aldatu duten pertsonak (N=420)



Aldaketaren arrazoiak, lekualdatze motaren arabera

Bizilekuz aldatzeko arrazoiak lekualdatze motaren arabera aztertuz, desberdintasun esanguratsuak ikusten dira tokiko, autonomia-erkidegoen arteko eta nazioarteko lekualdatzeen artean, eta agerian uzten du gazteen mugikortasuna bultzatzen duten kausak haien irismenaren arabera aldatzen direla.

† **Udalerri berean auzoz aldatu** direnen artean, familiaren erabakia izan da arrazoi nagusia (%46,4), eta, gero, bizi kalitatea hobetzeko nahia (%24,5). Beraz, iradokitzen da etxe aldaketa edo mudantza horiek etxe egokitzapenak egitearen edo bizi-tegi baldintza hobek bilatzearen ondorio izaten ahal direla.

† **Nafarroa barruko lekualdatzeak** ere familia arrazoiengatik azaltzen dira batez ere (%46,6); dena den, ikasketek eta lanak ere eragina dute (%26,8 eta %19,4, hurrenez hurren), eta horrek adierazten du hezkuntza eta lan aukerek gero eta eragin handiagoa dutela Foru Komunitatearen barruan.

† **Autonomia-erkidegoen arteko lekualdatzeei** dagokienez, arrazoi

nagusi hauek dira: prestakuntza (%45,7), enplegua (%30,8) eta familia erabakiak (%34,2). Hala, proiektu pertsonal eta profesionaleri lotuago dagoen mugikortasuna erakusten dute.

† Azkenik, **beste herrialde batera joan** direnen artean, arrazoiak askotarikoagoak dira: bizi kalitatea hobetzeko nahia (%30), lana bilatzekoa (%23,5) eta familiaren erabakia (%30) nabarmentzen dira. Nolanahi ere, familia berriz elkartzeko nahia (%17,9) eta, neurri txikiagoan, gatazka belikoekin edo segurtasun politiko ezarekin lotutako arrazoiak (%7,2) ere aipatzen dira.

Beraz, emaitzek erakusten dute distantzia laburreko lekualdatzeak familia edo bizitegi faktoreekin lotzen direla nagusiki; erkidegoen arteko eta nazioarteko mugimenduek, berriz, lotura handiagoa dute prestakuntzaren, lanaren edo familia integrazioaren arloko erabakiekin. Horrenbestez, Nafarroako gazteen mugikortasun esperientziak eratzen dituzten ibilbideen aniztasuna nabarmentzen da.

Zer dela-eta aldatu zinen bizilekuz?

Egindako lekualdatze motaren arabera

Oinarria: noizbait bizilekua aldatu duten pertsonak (N=420)

	Udalerrri berean bizi naiz, baina auzoz aldatu naiz	Bai, udalerriz aldatu naiz, baina autonomia-erkide- go beraren baitan	Bai, beste auto- nomia-erkidego batera aldatu naiz	Bai, beste herrialde batera aldatu naiz
Familiak hala erabaki zuelako	%46,4	%46,6	%34,2	%30,0
Ikasketengatik	%18,2	%26,8	%45,7	%21,1
Bizi-kalitatea hobetzeko: inguru- nea, etxebizitza, zerbitzuak, auzoko baliabideak, etab.	%24,5	%15,8	%18,3	%30,0
Lanagatik	%13,4	%19,4	%30,8	%23,5
Familia berriro elkartzeagatik	%9,6	%7,1	%5,2	%17,9
Independizatze- agatik	%7,8	%6,0	%3,7	%3,1
Nire jatorrizko herrialdean gerra zelako, segurtasun politikorik ez zelako, gatazka soziala zelako	%3,8	%0,7	%0,8	%7,2
Etxebizitzaren prezioa igo zelako	%3,5	%2,7	%1,4	%0,8
Bestelako arrazoiak	% 11,0	%5,8	%4,1	%5,2
Guztira elkarrizketatuak	137	134	132	214

Bizitegiz aldatzearen eragina

Bizitegi aldaketaren bat bizi izan duten gazte gehienek modu positiboan balioesten dute esperientzia horiek beren bizitzetan izan duten eragina. Oro har, mugikortasuna aukera gisa ikusten da —eta ez hainbeste zailtasun moduan—, batez ere hezkuntzarekin, enpleguarekin eta baldintza pertsonalak hobetzearekin lotutako arloetan.

Lan aukeren arloan hauteman da onura pertzepzio handiena: %51k uste du bizitegiz aldatzeak eragin positiboa edo oso positiboa izan duela, eta %5ek, berriz, negatiboki balioesten du. Aurrekoaren antzera, hezkuntza ibilbidean ere eragin eraikitzailea izan du (balorazio positiboan %53), eta horrek adierazten du lekualdatzeak erraztu egin dutela ikasketak edo prestakuntza baliabiak eskuratu ahal izatea.

Ongizate emozionalak eta gizarte eta familia harremanak atalen irakurketan ñabardura gehiago antzeman dira. Gehienek ez dute aldaketa han-

dirik hauteman (%40k eta %46k, hurrenez hurren, eragin neutroa adierazi dute); hamar gaztetik hiruk, gutxi gorabehera, ondorio positiboak izan dituztela adierazi dute —lagun berriak edota egokitze esperientzia berriak—; eta %9-10ek, berriz, eragin negatiboak bizi izan dituztela adierazi dute, estresarekin edo familiarekiko distantziarekin lotuta.


Egoera ekonomikoari eta zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeari dagokienez, gehienek egonkortasuna sumatu dute, orekarako edo hobekuntzarako joera orokorrarekin (%48 eta %50 izan dira, hurrenez hurren, balorazio positiboak).

Beraz, ondorioztatzen ahal da Nafarroako gazteek ikaskuntza prozesu eta hazkunde pertsonal gisa hartzen dituztela bizitegi aldaketak; hala, aldaketa horietan, prestakuntzan nahiz lan eta bizi esperientzietan izaten dituzten onurek garrantzi handiagoa dute egoera berrira egokitzeko zailtasunek edo kostu emozionalek baino.

Bizitegiz aldatzearen eragina

Zure ustez, zer eragin izan dute zure bizitzan zehar egin dituzun bizileku aldaketek honako gai hauetan?

Oinarria: noizbait bizilekua aldatu duten pertsonak (N=420)



■ Oso eragin negatiboa
 ■ Eragin negatibo samarra
 ■ Eragin neutroa / Eraginik ez
■ Eragin positibo samarra
 ■ Eragin oso positiboa

Aurreko atalean
deskribatutako migrazio
ibilbideek isla zuzena
dute gazteek beren
hizkuntza, kultura eta erlijio
identitateak eraikitzen
dituzten moduan



4

Aniztasuna
eta gazteen
identitateak

4.1. Hizkuntza aniztasuna

Gazteen hizkuntza praktikak, testuinguruaren eta jatorriaren arabera

Datuen azterketak agerian utzi du gaztelania finkatu dela komunikazio hizkuntza nagusitzat, bai etxean (%92,8), bai etxetik kanpo (%96,6). Hain zuzen ere, gazteen bizitza sozial eta publikoan hizkuntza komun gisa duen funtzioa adierazten du gorakada horrek.

Euskararen presentzia handitu egin da etxetik kanpo (%9,9tik %12,7ra), eta, horrenbestez, berretsi egiten da erabilera funtzionalagoa duela, hau da, gehiago erabiltzen dela hezkuntza edo komunitate testuinguruetan familietan baino. Aitzitik, atzeritar jatorriko hizkuntzen erabilera —arabiera edo “beste hizkuntza batzuk”, esaterako— nabarmen murrizten da espazio publikoan, eta, beraz, agerian geratzen dira hizkuntza egokitzapeneko prozesuak.


Ingelesaren eta frantsesaren erabilera bazterrekoa da; zertxobait gehiago erabiltzen dira etxetik kanpo, prestakuntza edo lan arrazoiengatik. Oro har, emaitzek erakusten dute gaztelania dela nagusi eremu guztietan, eta, horrez gain, hizkuntza aniztasuna dagoela, batez ere familian gauzatzen dena.

Beraz, argi eta garbi bereizten dira eremu pribatua eta publikoa. Etxean nolabaiteko hizkuntza aniztasuna dago, atzeritar jatorriko gazteen artean batez ere; etxetik kanpo, berriz, gaztelania erabilera ia unibertsaleko hizkuntzatzat finkatzen da; eta euskara hizkuntza osagarria da tokiko edo hezkuntzako testuinguruetan.

Komunikazio hizkuntza etxean eta etxetik kanpo

Zer hizkuntzatan komunikatzen zara etxean? Zein da zure hizkuntza nagusia etxetik kanpo, komunikatzeko gehien erabiltzen duzuna?

Erantzun bat baino gehiago ematen ahal dira. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Halaber, datuek erakusten dute jaioterriak eragina duela etxean eta etxetik kanpo erabiltzen den hizkuntzan, eta ingurune sozialak Nafarroako gazteen hizkuntza praktikak modulatzeko dituela.

Nafarroan jaiotako pertsonen artean, gaztelania da nagusi bai etxean (%95,1) bai etxetik kanpo (%77,2); nolana ere, espazio publikoetan euskaraz pisua hartzen du (%13,3tik %34,3ra), eta beste hizkuntza batzuen erabilerak ere gora egiten du, bereziki ingelesaren edo atzerriko beste hizkuntza batzuen erabilerak (%27,7). Horrek adierazten du bertako gazteek ia modu unibertsalean erabiltzen dutela gaztelania familia esparruan, baina gizarte harremanetan eta prestakuntza eremuetan eleantzasunerako esposizio eta gaitasun handiagoa erakusten dutela, bereziki euskaraz eta ingelesez.

Beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako gazteen taldean, gaztelania nagusi izaten jarraitzen du bi testuinguruetan (%93,6 etxean eta %89,1 etxetik kanpo); dena den, euskararen erabilera %17,7ra iristen da eremu publikoan, eta horrek adierazten du nolabaiteko hizkuntza integrazioa duela Nafarroan. Horrez gain, beste hizkuntza batzuk (%10,8) eta arabiera (%4,2) gehiago erabiltzen direla antzeman da, kultura aniztasun handiagoaren isla.

Espainiatik kanpo jaiotako gazteen artean, gaztelania finkatu da integrazio hizkuntza gisa: %85,7k etxean erabiltzen dute, eta %91,5ek etxetik kanpo. Euskara, berriz, ia ez da aipatu ere egiten (%1,8). Talde horretan, arabieraren (%11,3 etxean eta %5,9 etxetik kanpo) eta beste hizkuntza batzuen (%16,1 eta %10,0, hurrenez hurren) erabilerak nabarmentzen du jatorrizko

4 Aniztasuna eta gazteen identitateak


hizkuntzei eusten zaiela eta gaztelania hartzen dela komunikazio soziale-rako bitarteko nagusizat.

Beraz, datuek eredu argia erakusten dute: gaztelania komunikazio hizkun-

tza komuna da talde eta testuinguru guztietan; euskara Nafarroan jaiotako gazteekin lotzen da ia esklusiboki, eta maizago erabiltzen da etxetik kanpo; eta atzerritar jatorriko hizkuntzak familia eremura mugatzen dira.

Komunikazio hizkuntza etxean eta etxetik kanpo

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa




Nafarroako gazteek profil eleaniztun nabarmena dute: %20,5 soilik komunikatzen da hizkuntza bakar batean; %39,4k bi erabiltzen ditu; eta %40,1ek hiru hizkuntza edo gehiago erabiltzen ditu. Guztira, hamar gaztetik ia zortzik gutxienez bi hizkuntza erabiltzen ditu eguneroko bizitzan.

Jaioterriaren arabera, aldeak nabarmentzen dira. Nafarroan jaio direnen artean, hizkuntza bakarrean hitz egiten duten gazteak gutxiengo dira (%14,8); argi eta garbi nagusitzen dira bi hizkuntza eta hiru hizkuntza edo gehiago erabiltzen dituztenak (%41,2 eta %44,0, hurrenez hurren). Antzeko eredia ikusten da beste autonoma-erkidego batzuetan jaiotako

en artean, ia erdiek (%49,4) adierazi baitute hiru hizkuntza edo gehiago erabiltzen dituztela.


Bestalde, Espainiatik kanpo jaiotako banaketa desberdina da: gora egin du hizkuntza bakarra erabiltzen duten gazteen proportzioak (%38,9), baina gehienek (%61,1) komunikatzeko bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen jarraitzen dute.

Horrenbestez, emaitzek adierazten dute eleaniztasunak hedapen zabala duela gazteen artean, nahiz eta horren intentsitatea aldatu egiten den gazteen ibilbidearen eta jatorriaren arabera.




Komunikazioan erabilitako hizkuntza kopurua**Zenbat hizkuntza hitz egiten dituzu?**

Erantzun bat baino gehiago ematen ahal dira. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Komunikazioan erabilitako batez besteko hizkuntza kopurua

2,32



Hizkuntza hezkuntzan

Gaztelania da, alde handiz, derrigorrezko irakaskuntzako hizkuntza nagusia: gazteen %81,5ek adierazi du hori, eta ehuneko are handiagoak lortu dira Nafarroatik kanpo eta Espainiatik kanpo jaio zirenen artean (%89,1 eta %91,5, hurrenez hurren). Nafarroan jaiotako pertsonen artean, gaztelaniak nagusi izaten jarraitzen badu ere (%77,2), euskararen presentzia askoz ere handiagoa da.

Euskara da bigarren hizkuntzarik aipatuena (%25,2), eta lurraldetasun kutsu argia du: Nafarroan jaiotakoek %34,3k erabiltzen du edo erabili izan du hezkuntzan; erabilera hori %17,7ra jais-ten da beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritakoek artean; eta oso gutxi erabiltzen da beste herrialde batzuetan jaiotako gazteen artean (%1,8).

Beste hizkuntza batzuek migrazio ibilbideei lotutako banaketa erakusten dute. Arabierak %5,9 lortu du Espainiatik kanpo jaiotakoek artean, eta "beste hizkuntzak" aukerak, berriz, %10etik gora izan dira Nafarroatik kanpo jaiotakoek artean. Ingelesak eta frantsesak, hezkuntza ibilbideetan gutxien erabili arren, bali-olio neurritsu eta nahiko egonkorrei eusten diete.


Beraz, ikusten da gaztelania dela hizkuntza nagusia derrigorrezko eskolatzean, eta euskarak, berriz, funtzio garrantzitsua duela Nafarroan jaiotako gazteen artean. Gainerako hizkuntzek, minoritarioak izan arren, aniztasuna ematen dute, eta lotuta estua dute inkestatutako pertsonen jatorriarekin.

4 Aniztasuna eta gazteen identitateak


Komunikazio hizkuntza hezkuntzan

Zein hizkuntzatan ari zara ikasten edo ikasi duzu derrigorrezko irakaskuntzan (16 urte artekoa)?


Erantzun bat baino gehiago ematen ahal dira. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa




Jaioterriaren arabera



Nafarroan jaio ziren
(n = 463)



Nafarroatik kanpo jaio ziren, beste autonomia-erkidego batean
(n = 57)



Espainiatik kanpo jaio ziren
(n = 181)



4.2. Erlijio aniztasuna

Nafarroako gazteen artean aniztasun handia da erlijio sinesmen eta atxikipenei dagokienez, fededunak, agnostikoak eta ez-erlijiosoak elkar-tzen baitira. Oro har, %28,9 katoli-koak dira, eta ehuneko apur bat han-diagoak, %32,8k, adierazi du ez duela inolako erlijio atxikipenik. %23,6k, berriz, agnostikotzat du bere burua; hala, ordezkaritza handia duen tal-deetako bat da.

Datuak jaioterriaren arabera azter-tzean, alde nabarmenak ikusten dira. Nafarroan jaiotakoek dute erlijiorik gabeko gazteen proportzio handiena (%37,2), baita beren burua agnostiko-tzat duten gazteen ehuneko handia ere (%28,9). Bestalde, beren burua katolikotzat dutenek pisu txikia-goia dute talde horretan (%27,5) talde osoan duten pisuarekin alderatuta.

Espainiatik kanpo jaiotakoen tal-deak bestelako banaketa du, erlijio


ez-katolikoek presentzia handia-goarekin, hain zuzen ere. Musul-manarekiko atxikipena %19,1ekoa da, eta ebanjeliko/protestantearena %13,2koa; talde guztien artean, ho-riek dituzte portzentajerik handie-nak. Beren burua katolikotzat dute-nek ere pisu handiagoa dute (%36,3); aitzitik, erlijiorik ez dutela eta ag-nostikoak direla adierazi dutenak ez dira laginaren gainerako taldeetan bezain ohikoak (%20,5 eta %8,1, hu-rrenez hurren).

Datuek egoera plurala erakusten dute, askotariko sinesmenak eta er-lijiorik gabeko gazteen multzo ga-rrantzitsua elkarrekin bizi baitira. Erlijio profilen aniztasunak lotura estua du pertsonen jatorriarekin, eta agerian uzten du migrazio ibilbideak direla-eta heterogeneotasuna are-a-gotu egin dela Nafarroako gazteen sinesmenen mapan.


Identifikazio erlijiosoa edo espirituala

Erljio edo sinesmen espiritualik praktikatzen duzu edo horietakoren bateko kide sentitzen zara?

Erantzun sinplea. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Jaioterriaren arabera



Erlijioa praktikatzeko edo bizitzeko moduak

Beren burua erlijioaren batekin lotzen duten gazteen artean, erlijio bizipen ohikoena sinbolikoa edo kulturala da. Guztira, gazteen %39,3k adierazi du erlijioarekin duen lotura bere kulturaren, familia historiaren edo tradizioen parte dela; joera horrek maila gorena lortzen du Nafarroan jaio direnen artean (%42,7), eta balio altuak ditu, halaber, beste autonomia-erkidego batzuetatik eta beste herrialde batzuetatik etorritakoen artean (%34,5 eta %31,1, hurrenez hurren).

Praktika aktiboa, erlijio jardueretan erregulartasunez parte hartzean edota fedeak eguneroko bizitzan duen zuzeneko eraginean oinarritua, ez da hain ohikoa gazteen artean (%18,9). Hala ere, alde nabarmenak daude jatorriaren arabera. Espainiatik kanpo jaiotakoen artean, %35,7k aktiboki praktikatzen du, eta beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritakoen artean, %32,5ek. Nafarroan jaiotako

gazteen artean, berriz, praktika aktiboa nabarmen txikiagoa da (%11,4).

Erlijioa bizitzeko modu pertsonal, espiritual edo ez-instituzionalenek ehuneko txikia dute guztizkoan (%4,3), baina presentzia handiagoa dute Espainiatik kanpo jaiotako gazteen artean (%10,6); beraz, horrek agerian uzten du erlijioa bizitzeko moduak askotarikoagoak direla talde horretan.

Irakurketa orokor bat eginez, adierazten ahal da erlijio bizipen gehienak kulturalak edo identitarioak direla Nafarroako gazteen artean, eta praktika aktiboa gutxiengoaren ezaugarria dela; hain zuzen ere, praktika mota hori ugariagoa da migrazio ibilbidea duten taldeetan. Bestalde, erantzun ez dutenen proportzio handiak iradokitzen du gazteen zati handi batentzat erlijioak funtzio zehaztugabea duela eguneroko bizitzan, edo ez oso garrantzitsua.

Erlijioa edo espiritualtasuna praktikatzeari

Gaur egun nola bizi duzu edo praktikatzen duzu erlijioa?

Erantzun simplea. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



%18,9

Modu aktiboan

Erljioa praktiketan parte hartzen duzu aldizka, eta zure fedea eragin handia du zure eguneroko bizitzan



%39,3

Modu sinboliko edo kulturalen


Erljioa zure kulturaren, familia historiaren edo tradizioen parte gisa hartzen duzu, baina ez duzu modu aktiboan praktikatzen eta ez duzu bizi sinesmen espiritual sakon moduan



%4,3


Beste modu batzuetara

Erljioarekin duzun harremana bestelakoa da, pertsonalagoa, espiritualagoa, ez-instituzionala edo balioetan oinarritua




%37,5


Nahiago dut ez erantzun / Ez dakit
Ez dut erlijiorik praktikatzen



Nafarroan jaio zirenen
(n = 463)



Nafarroatik kanpo jaio zirenen, beste autonomia-erkidego batean
(n = 57)



Espainiatik kanpo jaio zirenen
(n = 181)

4.3. Kultura aniztasuna

Kultura identitatea eta kidesan sentipena

Kontsultatutako Nafarroako gazte gehienek kulturalki Nafarroarekin lotzen dute beren burua, gutzitakoaren %56,4k aipatu baitu aukera hori. Kidesan sentimendu hori bereziki handia da Foru Komunitatean jaio direnen artean, %72,1era iristen baita. Aitzitik, sentimendu hori %31,4ra jaisten da beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritakoan artean, eta %19,6ra atzerrian jaiotako gazteen artean.

Espainiar identitatea da bigarren aukera ohikoena (%27,2), eta nahiko banaketa homogenea du jatorri nazionalako aukeren artean; Espainiatik kanpo jaiotakoan artean, berriaz, %19,6ra jaisten da.

“Familia jatorriaren herrialde edo kulturarekiko” lotura kulturala jaioterriaren arabera da neurri handi batean. Nafarroan jaiotakoan %3,6k soilik hautatu dute aukera hori; beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritakoan artean, %12,0ra igotzen da; eta, azkenik, Espainiatik kanpo

jaiotako gazteen artean aukera hautatuena izan da, erdiak baino gehiago (%52,8) familia jatorriaren kulturarekin identifikatzen baitira, batez ere.

Beste identitate mota batzuek —europarra (%5,6) edo beste kultura identitate espezifiko batzuk (%2,4)— agerpen txikiagoa dute, eta aldeak daude taldeen artean.


Azkenik, %14,0k adierazi du ez duela bere burua lotzen kultura identitate jakin batekin edota nahiago duela ez erantzun. Proporzio hori zertxobait handiagoa da Espainiatik kanpo jaiotako gazteen artean (%20,4), eta %11,8ra jaisten da Nafarroan jaiotakoan artean.

Beraz, eredu argi bat ikusten da: kultura identitatea Nafarroarekin lotzen da nagusiki, eta bigarrenik, espainiar identitatearekin; horrez gain, migrazio jatorriak erreferenteen aniztasun handiagoa dakar, eta oso nabarmena da familiaren herrialdeari edo kulturari lotutako identitatearen agerpena.

Kultura identitatea

Nola definituko zenuke zure kultura identitatea edo kide-tasun sentimendua?

Erantzun bat baino gehiago ematen ahal dira. Oinarria: elkarrizketatuen gutzizkoa



Jaioterriaren arabera	Nafarroan jaio ziren	Nafarroatik kanpo jaio ziren, beste autonomia-erkidego batean	Espainiatik kanpo jaio ziren
Nafarra	%72,1	%31,4	%19,6
Espainiako beste autonomia-erki-dego batekoa	%4,4	%30,4	%0,4
Espainiarra	%29,8	%27,7	%19,6
Familiaren jatorriko herrialde edo kulturakoa	%3,6	%12,0	%52,8
Europarra	%6,8	%3,1	%3,0
Beste kultura identitate batekoa	%1,9	%3,3	%3,7
Ez naiz batekin ere identifikatzen / Nahiago dut ez erantzun	%11,8	%14,1	%20,4
Gutzira elkarrizketatuak	463	57	181



Kultura identitatearen garrantzia

Gazteek beren kultura sustraiei — norberarenak edo hurbileko senideenak— ematen dieten garrantzia handia da oro har, jatorria edozein dela ere. Lagin osoaren %59,0k adierazi du sustrai horiek garrantzi handia dutela, eta %4,9k soilik adierazi du haien zatzat ez dutela inolako garrantzirik.

Jatorriaren arabera azterketak erakusten du balorazio altu hori profil guztietan errepikatzen dela, baina batez ere bizi ibilbide edo familia ibilbide askotarikoagoak izan dituzten artean. Hala, beste autonomia-erkidego batean jaiotako artean (%66,3) edo Espainiatik kanpo jaiotako artean (%65,1), bai eta atzerriko gurasoren bat dutenen artean ere (%63,8), kultura sustraiei ematen zaien garrantziak nabarmen gainditzen du batezbestekoa. Talde horie-

tan, jatorriari lotutako identitateak garrantzi berezia du.



Nafarroan jaiotako gazteen eta jatorri nazionalako gurasoak dituzten artean, identitateak garrantzi handia izaten jarraitzen du, %56,1eko eta %56,2ko balioak lortu baitira, hurrenez hurren; nolana ere, migrazio jatorria duten profiletan baino intentsitate apur bat txikiagoa izan da.

Beraz, datuek erakusten dutenez, kultura sustraiak identitate elementu garrantzitsuak dira gazte gehienentzat, eta intentsitate berezia dute beren ibilbide pertsonalean edo familiarrean mugikortasuneko edo kultura aniztasuneko esperientziak bizi izan dituzten profiletan (Nafarroatik kanpo jaiotakoak, Espainiatik kanpo jaiotakoak edo guraso atzeritarrak dituztenak).

Kultura identitatearen garrantzia

Zuretzat zer neurritan dira garrantzitsuak zure edo zure ahaide hurbilena kultura sustraiak edo jatorriak?

Erantzun sinplea. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



4.4. Gizarte taldeekiko identifikazioa


Nafarroako gazte gehienek adierazi dute ez direla proposatutako talde bakar baten parte sentitzen edo ez dutela beren burua horietako bakar batekin identifikatzen. Lagin osoan, portzentaje hori %90,9ra iristen da, eta zertxobait handiagoa da gizonen artean (%93,1) emakumeen artean baino (%88,6).

Beren burua talderen batekin lotzen dutela adierazi dutenen artean, atxikipen ohikoena LGTBIQ+ kolektiboari loturikoa da, guztizkoaren %5,5era iristen baita. Ehuneko hori sexuaren arabera aztertuz gero, aldea nabarmena da: emakumeen %8,7k lotzen du bere burua talde horrekin, eta gizonen artean, berriz, %2,5ek. Adina-

Gizarte talde edo kolektibo espezifikoetako kidesasuna edo haiekiko identifikazioa

Talde hauetakoren bateko kide sentitzen zara edo talde hauetakoren batekin identifikatzen zara?

Erantzun anitza, iradokitakoa. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa





ren arabera, proportzioak antzekoak dira 16 eta 24 urte bitartekoen artean (%5,8) eta 25 eta 30 urte bitartekoen artean (%5,1).

Beste talde batzuek identifikazio maila txikiagoak dituzte. %1,7k ijitoa dela dio, %1,5ek pertsona arrazializatua eta %0,7k desgaitasuna duen pertsona;

azken kasu horri dagokionez, balioak zertxobait handiagoak dira 25-30 urtekoen artean. Beste gutxiengo batzuekiko identifikazioak, hala nola kalteberatasun egoeran dauden taldeekiko edo erlijio gutxiengoekiko identifikazioak, oso minoritarioak dira; aztertutako profiletako bakar batean ere ez dira %0,6 baino handiagoak.

Elkarrizketatuaren adinaren eta sexuaren arabera

	 Gizona	 Emakumea	16-24 urte	25-30 urte
Ez naiz identifikatzen talde horietako ezeinekin	%93,1	%88,6	%91,7	%89,8
LGTBIQ+ pertsona	%2,5	%8,7	%5,8	%5,1
Ijitoa	%1,6	%1,8	%1,0	%2,7
Pertsona arrazializatua: gizarteak ez zuritzat edo ez-gehiengokotzat jotzen duena	%1,6	%1,4	%1,2	%1,9
Desgaitasun fisikoa, sensoriala, intelektuala, psikosoziala edo anizkoitza duen pertsona	%1,0	%0,4	%0,2	%1,5
Kalteberatasun egoeran dagoen beste gutxiengo edo talde bat	%0,3	%0,6	%0,5	%0,3
Erljio gutxiengo bateko kidea	%0,3	%0,2	%0,0	%0,6
Ed/Ee	%0,3	%0,2	%0,2	%0,3
Guztira elkarrizketatuak	353	348	378	323

Banakakoen identitateetatik
harago, funtsezkoa da aniztasun
horiek eguneroko bizitzan nola
adierazten eta erlazionatzen
diren aztertzea



5

Kulturarteko
bizikidetza

5.1. Kulturarteko aniztasuna, bizikidetza eta gizarte harremanak

Aniztasuna eta bizikidetza Nafarroako gazteen eguneroko inguruneetan

Aniztasuna Nafarroako gazteen egunerokoaren parte da, baina haren presentzia aldatu egiten da harreman gunearen eta jaiotzaz duten jatorriaren arabera.

Grafikoan ikusten ahal denez, gertuko lagun taldea da aniztasunarekin harremanetan jartzeko gune nagusietako bat, hamar gaztetik ia lauk oso maiz izaten baitituzte horrelako harremanak. Joera hori are handiagoa da atzerrian jaio direnen artean; horrek erakusten du haien inguru hurbileko harreman inguruneak askotarikoagoak direla. Bestalde, askotariko harremanik ez izatea oso egoera minoritarioa da.

Hezkuntzaren, prestakuntzaren edo lanaren esparruan, are handiagoa da kulturen arteko bizikidetza; hain zuzen ere, jatorri desberdineko pertsonen arteko harreman esparru nagusietako bat da. Lagun gehien esparru horretan izateak agerian uzten du zein garrantzitsua den sozializaziorako egiturazko testuinguruak izatea, bai eta jarduera akademikoaren edo lan jardueraren ondoriozko eguneroko interakzioa ere.

Aitzitik, kirol jardueretako harreman aniztasuna ez da hainbestekoa, eta dinamika segmentatuagoak agertzen dira. Gazteen zati handi batek askotariko pertsonekin nolabaiteko harremana badu ere, handiagoa da horrelako harremanik ez dutenen pisua, bereziki atzerrian jaiotakoaren artean.


Erljio kulturako tokia da aniztasunaren ikuspegitik gutxien partekatzen den esparrua. Gazte gehienek (%83,4k) ez dute kulturarteko harremanik testuinguru horretan; dena den, atzerrian jaiotakoaren artean, askotariko harreman gehiago ikusten dira, eta horrek esan nahi du espazio horiek erabilera eta esanahi desberdinak dituztela.

Datuen irakurketa orokorraren arabera, aniztasunarekin den bizikidetza eguneroko gizarte espazioetan gartzten da nagusiki —lagun taldeetan eta hezkuntza edo lan inguruneetan—; aitzitik, aniztasuna mugatuagoa da esparru espezifikokoagoetan edo sozialki segmentatuago dauden esparruetan, hala nola kirolean edo erlijio kulturako espazioetan. Era berean, atzerrian jaiotako pertsonen joera handiagoa dute aniztasun gehiagoko harreman inguruneetan aritzeko.

Aniztasuna Nafarroako gazteen eguneroko harremanetan

Ba al duzu harremanik bestelako jatorria, kultura edo erlijioa duten pertsonekin?

Oinarria: elkarriketatuen guztizkoa



Datuek berresten dutenez, Nafarroako gazteek sare sozialetan dituzten harremanetan, aniztasunaren presentzia desberdina da kasuan-kasuan aztertutako taldearen arabera, eta alde handiak daude gertutasun mailaren arabera.

Etorquinekiko harremanak dira hedatuena: %12,1ek soilik adierazi du ez duela profil horretako lagunik edo ezagunik, eta %44,4k adierazi du nahikoa lagun edo asko dituela. Gazteen sare sozialetan integrazio maila handiena duen taldea da.

Tarteko maila batean daude beste erlijio bateko pertsonetik harremanak; horri dagokionez, %19,0k ez du inolako harremanik pertsona horiekin, eta %33,7 inguruk adierazi du nahikoa lagun/ezagun edo asko dituela. LGBTIQ+ taldeetako pertsonetik harremanei dagokienez, aldeak daude: ia heren batek ez du inolako harremanik, baina beste heren batek adierazi du harreman bizi-biziak dituela.


Harreman aniztasuna nabarmen txikiagoa da baliabide ekonomiko gutxi

duten pertsoneri dagokienez, eta, bereziki, desgaitasunen bat duten pertsoneri dagokienez. Azken kasu horretan, gazteen erdiak baino gehiagok (%52,8k) adierazi du ez duela desgaitasuna duen lagunik edo ezagunik.

Aniztasun harremanik gabeko egoera nabarmenena ijitoei loturikoa da: hiru gaztetik ia bik (%64,7k) adierazi dute ez dutela inolako harremanik, eta %7,0k soilik adierazi dute nahikoa lagun edo asko dituztela.

Gizarte errealitate desberdinetako pertsonetikiko bizikidetzaz eta loturak *Zenbat lagun ezagutzen dituzu ondoko kidegoren batekoak direnak?*

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Kolektibo horiekin inolako harremanik ez dutela adierazi duten pertsonen ehunekoak haien jaioterriaren arabera aztertuta, desberdintasunak nabarmenagoak dira. Atzerrian jaiotako gazteen artean, ohikoagoa da talde hauekin harremanik ez izatea: ijitoekin (%71,1), desgaitasunen bat dutenekin (%62,3) eta LGTBQ+ pertsonekin (%50,9).

Aitzitik, etorkinekin inolako harremanik ez izatea nabarmen txikiagoa da atzerrian jaiotako artean (%3,7) Espainian jaiotako artean baino (%14,7), eta, horrenbestez, esaten ahal da Espainian jaiotako pertsonen arteko harreman inguruneak homogeneoagoak direla.

Bizitegi ingurunearen osaera soziala eta aniztasuna

Egungo bizilagunez duten pertzepzioa aztertuta, ingurune nagusiki nazionala/nafarra dela esaten ahal da, aniztasun maila desberdinekin. Nafarroako gazteen artean, hamarretik zortzik baino gehiagok adierazi dute beren auzoan biztanleria nazionala/nafarra dela gehiengoa, bai nagusiki (%32,4) bai nolabaiteko jatorri aniztasunarekin konbinatuta (%51,2). Gutxiengo batek baino ez du adierazi bere ingurunean aniztasuna dela nagusiki (%16,4, bi kategoriak batuta).

Pertzepzio hori nabarmen aldatzen da jaioterriaren arabera:

- † Nafarroan jaio zirenen artean, bizilagunen irudia homogeneouskoa da; talde honen arabera, batez ere nazionalak/nafarrak bizi diren auzoek pisu handiagoa dute (%36,4) eta argi eta garbi askotarikoak diren inguruneak gutxiago dira.
- † Bestalde, beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak tarteko posizioan daude; izan ere, beren auzoetan biztanleria nazionala/nafarra nagusi izan arren anizta-


sunaren ereduaren pertzepzioa da nagusiki gazte horien artean (%56,1), eta gutxiak adierazi dute beren auzoan aniztasun handiko ingurunea dela.

- † Aldiz, Espainiatik kanpo jaio zirenen artean, bizitegi ingurunearen pertzepzioa oso desberdina da. Talde horretako kideek neurri handiagoan lotzen dituzte beren auzoak askotariko jendea bizi den inguruneekin, bai aniztasuna nagusi den testuingurutzat (%11,1), bai aniztasuna nagusi izan arren biztanleria nazionalarekin/nafarrarekin bizi diren testuingurutzat (%14,9). Aldi berean, talde horretako kideek oso gutxitan adierazi dute beren auzoan herritar gehienak nazionalak edo nafarrak direla.


Beraz, argi ikusten den moduan, jatorriak nabarmen baldintzatzen ditu bizitegi esperientzia eta ingurunean aniztasunaren pertzepzioa, eta lurralde barruan bizikidetzaren errealitate desberdinak eta, ziurrenik, bizitegi ibilbide bereziak daudela adierazten du.

Zein da zure egungo auzoaren osaera soziala?

Erantzun laburra. Oinarria: elkarrizketatuen gutzizkoa



Jaioterriaren arabera



Gizarte eta bizikidetza ereduaren gaineko lehentasunak

Atal honetan kulturarteko bizikidetza aztertu da, Nafarroako gazteen harreman pertsonalak, sare sozialak eta bizitegi ingurunea kontuan hartuta. Argi geratzen da aniztasunak eragina duela, maila desberdinetan, gazteen eguneroko bizitzan, batez ere jatorri, kultura edo erlijio desberdinetako pertsonekin izaten diren kontaktatu eta harremanen bitartez.

Esperientzia horiek nagusiki nazionalizat/nafartzat hartzen diren baina aniztasuna dagoen bizitegi inguruneetan garatzen dira batez ere, nahiz eta pertzepzio hori aldatu egiten den jatorriaren arabera; hau da, Espainiatik kanpo jaiotako pertsonen artean ohikoagoa da auzoak aniztasun handiagokotzat identifikatzea.

Azkenik, eguneroko bizipen horiek jarraitutasuna izanen dute Nafarroako

gazteek lortu nahi duten gizarte eredu. Izan ere, jarrera polarizatuetatik urrun, gehiengoak askotariko gizarte hautatzen du, kulturartekoa, baina balioen eta ohituren esparru partekatu batekin. Horrenbestez, bizikidetzarekiko jarrera pragmatikoa islatzen du: aniztasuna gizarte ingurunearen parte gisa onartzen eta aitortzen da, baina betiere gizarte orekaren, integrazioaren eta kohezioaren logikan ulertuta, balio eta erreferentzia komunen esparru partekatu baten barruan.


Datuek adierazten dutenez, gazteek benetako kulturarteko harremanak dituzte gaur egun, aniztasun neurritsuko bizitegi inguruneetan bizi dira, eta gehiengoaren nahia da bizikidetza eredu inklusiboak izatea; horrek, beraz, sendotu egiten du kulturarteko bizikidetza batez ere egunerokotasunetik eraikitzen den ideia.

Laburbilduz, Nafarroako gazteen aniztasuna, bizikidetza eta kulturarteko gizarte harremanak aztertu ondoren, ondorioztatu da aniztasunarekiko bizikidetza haien eguneroko bizitzaren parte dela, batez ere lagunen eta hezkuntza edo lan inguruneen bitartez.

Hala ere, bizikidetza hori ez da neurri berean garatzen esparru guztietan; hau da, mugatuagoa da esparru espezifikagoetan edo sozialki segmentatuagoetan, hala nola kirolean eta erlijio kulturako espazioetan. Testuinguru horretan, ohikoa da jatorri desberdinetako pertsonekin harremana izatea (heterofilia), baina harreman hurbilenak zirkulu nahiko homogeenetan izan ohi dira (homofilia); nolana ere, zenbait taldetan, dinamika endogamikoagoak ikusten dira. Harreman logika horiek bizikidetza zalantzan jarri gabe garatzen dira oro har, baina kulturarteko loturen sakontasuna eta egonkortasuna baldintzatzen dute.


Libreki aukeratzerik izanen bazenu, zein gizarte motatan gustatuko litzaizuke bizitzea?

Erantzun bakarra, iradokitakoa. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Kulturarteko bizikidetzaren aldeko jarrerak nahiko partekatutak dira oro har, baina nabardura batzuk dituzte gazteen adina, generoa edo jaioterria kontuan hartuta:

- Adinaren arabera, aldeak txikiak dira; dena den, 25 eta 30 urte bitarteko pertsonak askotariko ereduez duten jarrera aldekoagoa da.
- Emakumeek ere jarrera irekiagoa dute aniztasunarekiko; gizonek, berriz, jarrera homogeenagoak edo zehaztugabeak dituzte.
- Jatorriaren arabera, Espainiatik kanpo jaiotako pertsonak ingurune askotarikoagoak hautematen dituzte, eta gehiago onartzen dute aniztasuna; dena den, profil guztietan nagusitzen da bizikidetzaz eredu orekatuko gizarte baten aukera.



Adinaren arabera

Sexuaren arabera

Jaioterriaren arabera

5.2. Kulturarteko bizikidetzan den erantzukizunari buruzko pertzepzioa eta espektatibak

Eguneroko bizikidetzan esperientzietatik harago (aurreko atalean aztertu ditugu), Nafarroako gazteek ikuspegi jakin bat eraikitzen dute hainbat testuingurutan bizikidetzan hori nork sostengatu eta sustatu behar duen aztertzean.

Hurrengo lerroetan, kulturen arteko bizikidetzaren erantzukizuna gazteek gaur egun nori egozten dioten aztertuko da; horrez gain, ikusiko dugu, gazteen iritziz, zein eragilek hartu beharko luketen erantzukizun hori neurri handiagoan, alderdi indibiduala, komunitarioa eta instituzionala kontuan hartuta.

Emaitzek erakusten dute Nafarroako gazteek babes handia ematen dietela diskriminazio positiboko politikari, desberdintasunak murrizteko eta desabantaila egoeran dauden kolektiboak erbitzu eta baliabideak eskuratzeko aukera hobetzeko tresna diren aldetik. Hamar gaztetik ia sei erabat ados daude horrelako jarduerekin;

arbuio esplizitua, aldiz, oso-oso minoritarioa da, eta ez da guztizkoaren %10era iristen.

Gehiengoaren babes horretaz gain, tarteko jarrera edo ñabardurazkoa hartzen duten gazteen ehuneko esanguratsu bat dago. Heren batek politika horiek izaten ahal dituzten onurak aitortzen ditu, baina zalantzak edo kezkek adierazten ditu politika horiek ezartzeari edo izaten ahal dituzten albo-ondorioei dagokienez. Jarrera-hartze horrek jokabide go-goetsua eta kritikoa iradokitzen du, ekitate printzipioaren funtsa zalantzan jartzea baino gehiago.

Nafarroako gazteen artean horrelako neurriek hain onarpen handia izateak agerian uzten du aukera berdintasunera bideratutako esku-hartze publikoaren zilegitasun soziala, eta hori oinarri lagungarria da gizarteratze politikak garatzeko eta desberdintasunak murriztearen inguruko konpromiso soziala eta zibikoa sustatzeko.


Grafikoan ikusten ahal den bezala, alde nabarmena dago gazteek kulturarteko bizikidetzaren erantzukizuna gaur egun nork duen eta etorkizunean nork izatea nahi luketen aztertuz gero. Gaur egun, bizikidetzaren erantzukizuna norbanakoei egozten zaie gehienbat, baina etorkizuneko espektatibak aztertzean nabarmen aldatzen da joera, eragile kolektibo eta instituzionalen inplikazioa handiagoa izatea nahi baita. Horrela, Nafarroako gazteek eran-

→
jarraitzen du 62 or.

Kulturarteko bizikidetzaz sustatzeko politiken aitortza


Zer iritzi duzu diskriminazio positiboko politikei buruz, hau da, generoagatik, desgaitasunagatik edo baliabide ekonomikoaren eskasiagatik desabantaila egoeran bizi direnei zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko aukera errazten eta hobetzen dieten jarduketei buruz?

Erantzun bakarra, iradokitakoa. Oinarria: elkarrizketatuen gutzizkoa



Diskriminazio positiboko politikei ematen zaien babes oso hedatuta dago Nafarroako gazteen artean, profila edozein dela ere; hala ere, emakumeek eta gazteenek atxikimendu argiagoa dute, eta gizonen eta adin talde nagusienera kideen artean, berriz, sarriago agertzen dira ñabardura gehiagoko jarrerak edo jarrera kritikagoak.

Jatorriaren arabera, ez dago alde handirik. Bai Espainian jaiotakoaren artean, bai atzerrian jaiotakoaren artean, argi eta garbi nagusitzen da politika horiekiko adostasuna, erabateko babes oso antzekoa baita bi taldeetan. Nolanahi ere, Espainiatik kanpo jaiotakoek jarrera neutral edo baldintzatuagoa agertzen dute; beraz, balorazio positiboa adierazten du, baina baita zuhurtziaz jokatzera ere.




tzukidetasuna eskatzen dute argi eta garbi, non administrazio publikoek, gobernuek eta tokiko elkarte sareek rol aktiboagoa hartuko duten kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko. Mugimendu horrek ez du esan nahi erantzukizun pertsonalari uko egin behar zaionik; hau da, esparru, baliabide eta politika publikoak izateko beharra adierazten du, gero eta askotarikoagoak diren testuinguruetan bizikidetzaren lagundu eta sostengatuko dutenak.

Irakurketa horrek kulturarteko bizikidetzaren arloko esku-hartze publikoaren legitimitatea indartzen du, eta bat egiten du diskriminazio positiboko politikei gehiengoak ematen dien babesarekin, aurreko ataletan ikusi bezala. Egiatzatuenez, gazteek ez dute bizikidetzaren gai indibidual gisa soilik ulertzen, baizik eta erronka kolektibotzat hartzen dute, lidergo instituzionala eta ekintza koordinatua eskatzen dituenak.

Erantzukizunari buruzko pertzepzioa eta espektatibak bizikidetzan
Figura hauetatik, zure ustez zeinek du gaur egun bizikidetzaren ardura?
Eta nork nahiko zenuke hartzea erantzukizun hori bere gain?


Erantzun anitza, iradokitakoa. Oinarria: elkarrizketatuen gutzitza



Generoaren arabera, emakumeek argiago erakusten dute erantzukidetasun kolektibo eta instituzionalerako espektatiba, tokiko elkarteetara, administrazio publikoetara eta gobernuetara etorkizuneko antagonismo handiagoa emanda. Gizonek, aldiz, neurri handiagoan eusten diote erantzukizun indibidualaren ideari, eta instituzioetara adierazten dituzten espektatibak neurritsuagoak dira.


Jaioterriaren arabera, Espainian jaiotako pertsonen artean, bizikidetzaren erantzukizuna erakundearen gain uzteko joera handiagoa antzematen da. Gaur egun batez ere pertsona bakoitzaren gain geratzen dela iritzi arren, argien adierazten dute etorkizuneko administrazio publikoetara eta gobernuetara zeregin hori neurri handiagoan hartu beharko luketela beren gain.

Atzerrian jaiotako pertsonetara, aldiz, intentsitate handiagoz hautematen dute bizikidetzaren erantzukizun indibidualtzat gaur egun, eta, etorkizuneko erakundearen inplikazio handiagoa eskatzen badute ere, ez diote halako garrantzia ematen, administrazio publikoetara eta gobernuetara dagokienez, batez ere.



■ Erantzulea, gaur egun

■ Erantzukizuna nork hartzea nahiko zenuke?



6

**Bizikidetzaren
mugak eta tentsioak:
diskriminazio
esperientziak eta
erantzunak**

Diskriminazio esperientziak

Nafarroako gazte gehienek adierazi dute gaur egun ez dutela negatibotzat edo oso negatibotzat hartzen ahal den tratu desberdinik jaso, berrin hizkuntzarekin, sinesmenekin, kulturarekin edo janzkerarekin lotutako arrazoiengatik. Guztira, %86,0k adierazi du ez duela inoiz horrelako egoerarik bizi izan. Proportzio hori handiagoa da gizonen artean (%91,0) emakumeen artean baino (%80,8). Era berean, tratu desberdineko esperientziarik ez izatea ohikoagoa da Espainian jaio direnen artean (%88,0) atzerrian jaio direnen artean baino (%79,8).

Aztertutako tratu negatiboren bat jaso izana aipatu dutenen artean (%13,4), hizkuntzarekin edo hitz egiteko moduarekin loturiko arrazoa aipatu da gehien (%7,4). Horri dagokionez, alde nabarmena ikusten da sexuaren arabera: emakumeen %11,4k aipatu du arrazoi hori, eta


gizonen %3,6k. Espainiatik kanpo jaiotakoaren artean ere ohikoagoa da (%12,8), herrialdean jaiotakoaren artean baino (%5,7).

Horrez gain, %4,0k adierazi du tratu negatiboa jaso duela bere erlijioagatik edo sinesmenengatik, eta eragina handiagoa izan da atzerrian jaiotako gazteen artean (%6,3). Bestalde, janzteko moduari buruzko aipamena, batez ere kultura edo erlijio elementuekin lotuta, ez da hain ohikoa; guztizkoaren % 2,4k aipatu du, eta Espainiatik kanpo jaiotakoaren %4,9k.

Gazte gehienek ez dute adierazi kultura, hizkuntza edo erlijio arrazoiengatik tratu negatiboa jasan dutenik, baina horrelako kasu gehienak emakumeen artean eta atzerrian jaiotakoaren artean biltzen dira, hizkuntzari, erlijioari eta kultura identitatearekin lotutako janzkerari dagokionez batez ere.

Diskriminazio indizea

Zure egungo bizitzaren eremuren batean, jaso al duzu tratu desberdina (negatiboa edo oso negatiboa) ondoko arrazoiren batengatik? Arrazoiak: hizkuntza, hitz egiteko modua, erlijioa, sinesmenak, janzkera




6 Bizikidetzaren mugak eta tentsioak: diskriminazio esperientziak eta erantzunak

Diskriminazio esperientziak

Zure egungo bizitzaren eremuren batean, jaso al duzu tratu desberdina (negatiboa edo oso negatiboa) ondoko arrazoiren batengatik?

Erantzun bat baino gehiago ematen ahal dira. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Sexuaren eta jaioterriaren arabera

	Gizona	Emakumea	Espanian jaio ziren	Atzerrian jaio ziren
Ez dut tratu desberdina jaso arrazoi horiengatik	%91,0	%80,8	%88,0	%79,8
Hizkuntzagatik edo hitz egiteko moduagatik	%3,6	%11,4	%5,7	%12,8
Erljioagatik edo sinesmenengatik	%3,2	%4,8	%3,3	%6,3
Janzkeragatik (zure kulturari edo erlijioari lotutako janzeragatik)	%2,2	%2,6	%1,6	%4,9
Bestelakoak	%2,3	%2,4	%2,3	%2,6
Ed/Ee	%0,0	%1,3	%0,7	%0,5
Guztira elkarrizketatuak	353	348	520	181

Kultura, hizkuntza edo erlijio arrazoiengatik tratu negatiboren bat jaso dutela adierazi duten gazte gehienentzat, esperientzia horiek noizean behingoak izan dira. Ia erdiek adierazi dute inoiz edo behin edo gutxitan gertatu zaizkietela: %40,4k noizean behin gertatu zaiela adiera-

zi dute, eta %35,8k behin edo bitan soilik gertatu zaiela.

Dena den, bada egoera horiek errepikorrak direla adierazi duen talde bat ere. %16,9k adierazi du tratu mota hori erregularitasunez gertatu zaiela, eta %2,0k oso maiz bizi du,



ia etengabe. Gutxiengoa izan arren, kasu horiek diskriminazio esperientzia iraunkorrakoak dira eragindako gazteen artean.

Beraz, gehienentzat diskriminazioa esperientzia jarraitua ez izan arren, ehuneko esanguratsu batek behin eta berriz bizi du, eta denboran zehar irauten duten bizipenak eratzten dira.

Diskriminazio esperientzien maiztasuna

Aipatu duzun tratu negatibo hori zenbateko maiztasunarekin gertatu da?
Erantzun bakarra.

Oinarria: diskriminazio motaren bat bizi duten pertsonak (N=77)



6 Bizikidetzaren mugak eta tentsioak: diskriminazio esperientziak eta erantzunak

Diskriminazio guneak

Gazte bat kultura, erlijio, jatorri edo beste edozein ezaugarriengatik diskriminatuta, baztertuta edo desberdin sentitu ahal izan den eremuetan sakontzean, inoiz diskriminatuta sentitu dela adierazi duten pertsonen portzentajea %41,6ra igotzen da.

Diskriminazio motaren bat sentitu izan duten pertsonak

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa




Uneren batean diskriminatuta sentitu den kolektiboan (%41,6), ñabardura garantzitsuak antzematen dira eremuaren arabera, eta horrek lagundu egiten du tratu desberdinaren esperientzia maizago zer eremutan gertatzen den ulertzen:

- † **Kirol jarduerak ia diskriminaziorik gabeko ingurunetzat hartzen dira:** %95,1ek ez du inoiz horrelako sentsaziorik izan horrelako eremuetan.
- † Antzeko eredia ikusten da **zerbitzu publikoak** eskuratzeari (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak) eta lagun taldeari dagokienez, %94k ez baitu horrelako egoerarik bizi izan aipatu eremuetan.
- † **Denda eta saltokietan**, gehien-gehienek ez dute diskriminaziorik izan (%92,5), baina gorakada txiki bat hauteman da “batzuetan” edo “oso maiz” sentitu izan dutela adierazi duten erantzunetan (%3,9 eta %0,7, hurrenez hurren).
- † **Aisialdiko espazioetan ere** —tabernak, jatetxeak, ikuskizunak...— antzeko dinamika ikusten da. 10 gaztetik ia 9k ez dute diskriminaziorik sentitu, baina kasu honetan argi eta garbi handitu da diskriminazioa noizean behin edo gutxitan jasan dutenen taldea (%5,6 eta %3,8, hurrenez hurren).
- † **Ikastetxeak edo lan zentroak** dira gazteek diskriminazio gehien bizi izan duten eremuak; izan ere, inoiz diskriminaziorik bizi izan ez den kasuen ehunekoa %86ra jaisten da, eta %14 inguruk aitortu du halakoak bizi izan dituela (maiztasun desberdinekin).
- † **Azkenik, etxebizitza eskuratzearena** (alokatuta edo erosita) kasu berezia da. %72,8k adierazi du ez duela diskriminaziorik sentitu, baina %22,8k hautatu du “Ez daki / Ez du erantzun” aukera; beraz, horrek agerian uzten du gazteen zati handi batek, ziurrenik, oraindik ez duela etxerik alokatu edo erosi beharrik izan, eta, beraz, ezin duela esperientzia horren baloraziorik egin.

Gazteek tratu desberdina hautematen duten eremuak

Testuinguru hauetakoren batean, inoiz sentitu al zara diskriminatuta, baztertuta edo desberdin tratatuta zure jatorriagatik, kulturagatik, erlijioagatik edo beste ezaugarriren batengatik?

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa




	Inoiz ez	Oso gutxitan	Batzuetan	Oso maiz	Ed/Ee
Ikastetxean/prestakuntza zentroan, lantokian	86,0	5,1	7,5	1,3	0,0
Aisialdiko espazioetan: ikuskizunak, aisialdiko lokalak, tabernak, jatetxeak	89,6	3,8	5,6	0,8	0,2
Dendetan, saltokietan	92,5	2,8	3,9	0,7	0,1
Lagun taldean	94,0	2,8	3,0	0,1	0,0
Zerbitzu publikoetarako sarbidean: osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak	94,7	1,9	3,2	0,1	0,1
Kirol jardueretan	95,1	1,8	2,7	0,1	0,3
Etxebizitza bilatzean: alokatzea, erostea	72,8	1,6	1,5	1,2	22,8

6 Bizikidetzaren mugak eta tentsioak: diskriminazio esperientziak eta erantzunak

Diskriminazio esperientziak Nafarroako gazteen generoaren, adinaren eta jaioterriaren arabera aztertuta, ondorioztatzen ahal da ez direla modu homogeneoan banatzen:

- ✦ **Adina:** 25 eta 30 urte bitarteko gazteek diskriminazio handiagoa adierazi dute 16 eta 24 urte bitarteko gazteek baino, batez ere aisialdian, saltokietan, zerbitzu publikoetan eta etxebizitzaren arloan, eremu horietan espozizio handiagoa izateagatik, ziur asko.
- ✦ **Generoa:** emakumeek, sistematikoki, gizonak baino diskriminazio egoera gehiago aitortzen dituzte, bereziki hezkuntza/lan inguruan.
- ✦ **Jatorria:** faktore erabakigarriena da. Atzerrian jaio zirenek eremu guztietan dituzte askoz ere diskriminazio tasa handiagoak, hala nola zerbitzu publikoetan, aisian, dendetan edo etxebizitzaren arloan.

Oro har, **diskriminazioak gutxiengo bati eragiten dio**, baina profil jakin batzuetan kontzentratzen da, argi eta garbi: **emakumeak, 25 urtetik** gorako gazteak eta, batez ere, **Espainiatik kanpo jaiotako** pertsonak.



Diskriminazio bizipenen ondorioak

Diskriminazio bizipenek ez dakarte hainbeste norberaren irudia higitzea, gizarte inguruneari begiratzeko modua aldatzea baizik. Ildo horretan, %36,8k uste du ez duela eraginik izan norbere buruaren pertzepzioan, eta %27,4k, berriz, gauza bera pentsatzen du beste pertsona batzuen pertzepzioari dagokionez.

Kontrara, ondorio nabarmenenak ingurukoekiko begiradan antzeman dira, argi eta garbi: %44,6k adierazi du bizipen horien ondorioz nahiko


edo asko aldatu dela besteak hautemateko modua, eta %29,0k gauza bera adierazi du norberaz duen pertzepzioari buruz.

Eredu horrek erakusten du diskriminazioa ez dela autoestimua zuzenean higitzen edo apaltzen duen faktore bat, baizik eta gizartearekiko konfiantza higitzen duen elementu bat; horrenbestez beste pertsona batzuekiko eta, oro har, harreman testuinguruarekiko zuhurtzia, distantzia edo mesfidantza areagotzen dira.

Diskriminazioaren ondorio emozionalak eta erlazionalak

Zure ustez, eremuren batean bizi izan dituzun diskriminazio edo arbuio esperientziek zenbateraino... Aldatu ahal izan dute zeure burua hautemateko duzun modua? Aldatu ahal izan dute besteak hautemateko duzun modua?

Oinarria: aztertutako eremuetan diskriminazio motaren bat bizi izan duten pertsonak (N=293)



6 Bizikidetzaren mugak eta tentsioak: diskriminazio esperientziak eta erantzunak

Diskriminazioari aitzin egiteko estrategiak

Diskriminazio edo bazterketa esperientzien aurrean, Nafarroako gazte gehienek adierazi dute zerbait egin izan dutela. Zehazki, %90,8k adierazi

du erantzunen bat eman edo estrategiaren bat garatu duela diskriminatuta sentitu ondoren, eta %9,2k adierazi du ez duela ezer egin.

Diskriminazioari aitzin egiteko strategiaren bat garatzen duten pertsonen indizea

Oinarria: aztertutako eremuetan diskriminazio motaren bat bizi izan duten pertsonak (N=293)



Hasierako aktibazio maila handi hori abiapuntutzat hartuta, ikusten da emandako erantzun gehienak estrategia informalak eta hurbilekoen babesa izan direla. Lagunekin edo senideekin hitz egitea da aukerarik ohikoena, alde handiarekin (%69,7). Bide hori hautatu da gehien profil guztietan, baina bereziki nabarmentzen da gazteen artean (16-24 urtekoak), emakumeen artean eta Espainian jaiotakoaren artean, %75etik gorakoa izan baita kasu horietan.

Bigarren lekuan saiheste estrategiak ageri dira, hala nola gertatutakoaz ez pentsatzen saiatzea (%18,2); aukera hori nabarmena da 25-30 urteko pertsonen artean eta, bereziki, atzerrian jaio direnen artean (%27,6). Talde berean, ohikoa da, halaber, bizi-tako egoeraren aurrean ezer ez egitea (%14,2); horrek esan nahi du arrisku

handiagoa dagoela aitzin egiteko modu pasiborako.

Laguntza profesionalaren baliabidea (psikologikoa edo orientaziokoa) gutxiengoak hautatu du (%4,7), baina batez ere 25-30 urteko pertsonak, emakumeek eta Espainiatik kanpo jaio direnek hautatu dutela ikusten da; horrenbestez, profil horietan laguntza espezializatua jasotzeko premia handiagoa dagoela iradokitzen du.

Bide formal edo instituzionalen erabilera (polizia, justizia edo Nafarroako Gobernuaren baliabide espezifikoak) oso hondarrekoa da, kasu guztietan %4tik beherako datuak lortu baitira. Horrek adierazten du babes mekanismo instituzionalen aktibazioa txikia dela, baita diskriminazio esperientziak bizi izan dituztenen artean ere.

Azterlanaren arabera ondorioztatzen ahal da batez ere inguru hurbilean eta banakako kudeaketan zentratutako eredia nagusitzen dela, baliabide formalen ikusgarritasun eta era-


bilera eskasarekin, eta, horrenbestez, erronka handiak planteatzen dira laguntza zerbitzu publikoen irisgarritasunari, konfiantzari eta ezagutzari dagokienez.

Nola egiten diete aitzin gazteek diskriminazio esperientziei?

Zer estrategia erabiltzen duzu diskriminazio edo bazterketa esperientziekin lotutako emozio negatiboetara aitzin egiteko?

Erantzun anitza, iradokitakoa.

Oinarria: aztertutako eremuetan diskriminazio motaren bat bizi izan duten pertsonak (N=293)



6 Bizikidetzaren mugak eta tentsioak: diskriminazio esperientziak eta erantzunak

Ehuneko txikia bada ere, garrantzitsua da diskriminazio edo bazterketa esperientziak bizi ondoren ezer egin ez dutela adierazi duten gazteek (%8,8) horretarako zer arrazoi izan dituzten aztertzea.

Talde horretan, arrazoi nagusia egoera minimizatzea da, %63,9k uste baitu ez dela larria. Beste %10,9k adierazi du horrelako esperientziak normalizatuta daudela edo ohikotzat hartzen direla, eta horrek diskriminazioa naturalizatzeko prozesuak iradokitzen ditu.

Bestalde, %16,6k ekintzaren eraginkortasunik eza aipatu du ("ez du deusetarako balio"), eta %8,6k adierazi du ez dakiela nora jo behar den, agerian utziz oztopoak daudela informatzeko eta erabiltzeko dauden baliabideak eskuratzeko.

Beraz, datuek adierazten dute diskriminazio egoerak jasan dituztela aitortu dutenek ezer ez egitea ez dela



soilik esperientzia horiek intentsitate txikikotzat hautemateagatik, baizik eta etsipena, gauzak aldatzeko itxaropenik eza eta laguntza kanalen inguruko ezjakintasuna izateagatik.

Diskriminazio egoeretan ezer ez egiteko arrazoiak

Zergatik ez duzu ezer egin?

Erantzun anitza, iradokitakoa

Oinarria: diskriminazioa edo bazterketa jasan dutela adierazi duten pertsonak (N=26)





7

Aktibismoa eta konpromiso soziala


Nafarroako gazte gehienek perzeptzio positiboa dute beren konpromiso sozial eta zibikoari dagokionez. Aztertutako hiru eremuetan, gazte gehienek inplikazio maila handiena adierazi dute, batez ere pertsonen askatasuna eta eskubideak babesteari eta elkartasuna eta kulturen arteko bizikidetza sustatzeari dagokienez.

Gazteen erdiak baino gehiagok uste du eskubideak eta askatasunak aktiboki babesten dituela, eta elkartasuna eta bizikidetza sustatzen dituela; horrez gain, ia erdiak berdintasunaren eta justizia sozialaren sustatzaile gisa identifikatzen du bere burua. Inplikazio maila txikiko jarre-rak ("ezer ez" edo "gutxi") gutxiengoa dira kasu guztietan, eta erantzun zehaztugabeak ere oso gutxi dira.

Aktibismoari buruzko autopertzepzioa eta jarrerak

Zure ustez, zer neurritan zara bila ari den, interesa adierazten duen edota gauzak sustatzen dituen pertsona bat?

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Aktibismoa eta konpromiso soziala barneratuago ageri da emakumeen artean, eta gehiago aitortzen dute; jatorriari dagokionez, berriz, aldeak txikiagoak dira, eta, jarrera kontrajarriak baino, ikuspegi nabardurak adierazten dituzte.

Emakumeek neurri handiagoan adierazten dute konpromiso sozial eta zibikoko maila altuak dituztela. Aztertutako hiru adierazleetan, "asko" erantzunaren ehunekoak dira altuenak, bereziki askatasuna eta eskubideak babesteari eta elkartasuna eta bizikidetzaren sustatzeari dagokienean. Gizonek, konpromiso maila handia badute ere, ehuneko txikiagoak dituzte sistematikoki; horrek adieraz-

ten du emakumeen artean gizarte konpromisoaren autoexijentzia handiagoa dela edo esplizituki adierazten dela.

Jaioterriaren arabera, aldeak ez dira hain nabarmenak. Oro har, bai Espainian jaiotakoek bai atzerrian jaiotakoek neurri handian aitortu diote beren buruari justizia, eskubide eta bizikidetzaren balioekiko konpromisoa. Nolanahi ere, Espainiatik kanpo jaiotakoek neurri handiagoan adierazi dute berdintasuna eta elkartasuna sustatzeko konpromiso handia dutela, eta Espainian jaiotakoek, berriz, balio zertxobait handiagoak lortu dituzte eskubideak eta askatasunak babesteari dagokionez.

Zure ustez, zer neurritan zara bila ari den, interesa adierazten duen edota gauzak sustatzen dituen pertsona bat?

Hurrengo eskalan, galdera horri "asko" erantzun diotenen ehunekoa: Batere ez. Gutxi. Pixka bat. Asko.

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa

Generoaren eta jaioterriaren arabera

"ASKO" erantzunak	Generoa		Jaioterria	
	Gizona	Emakumea	Espanian jaio ziren	Atzerrian jaio ziren
Berdintasuna eta justizia sustatzen dituzu gizartean	%39,9	%54,6	%48,5	%42,6
Pertsonen askatasuna eta eskubideak babesten dituzu	%50,4	%66,7	%61,9	%47,1
Pertsonen/kulturen arteko elkartasuna eta bizikidetzak sustatzen eta baloratzen dituzu	%47,5	%66,1	%57,5	%53,5
Guztira elkarrizketatuak	353	348	520	181

Gazteek balioei eta jarrerari dagokienez konpromiso sozial handia aitortzen badute ere, azken urtean antolatutako jardueretan parte-hartze eraginkor mugatua izan da. Aztertutako hiru esparruetan —gizarte jarduerak, elkarteetako jarduerak eta jardura politikoa—, nabarmen gaitentzen da parte ez hartzeko aukera; beraz, horrek adierazten du gazteek horrelako ekimenetan duten inplikazioa ez dela praktika orokortua.

Gizarte izaerako jarduerak, hala nola boluntariorzak edo komunitateko laguntzak, biltzen dituzte parte-hartze erlatiboaren maila handienak; dena den, esparru horretan ere, gazte gehienek ez dute parte hartu urtean. Elkarte eta politika jardueren kasuan, aldea are handiagoa da, eta parte-hartze egitura formaletarako lotura, hala nola elkarteetara, gazte taldeetara edo erakunde politikoetara, bereziki txikia da.


Eredu hori koherentea da azterlaneko beste emaitza batzuekin. Parte-hartze txikiak ez dirudi gizarte sentsibilitaterik edo konpromiso zibikorik ez izatea adierazten duenik, baizik eta beste mota bateko inplikazio modua adierazten du, ez hain egonkorra, noizbehinkakoa edo kanal tradizionaletatik urrundua; horrez gain, jardura horiek inguruan aldaketa esanguratsuak sortzeko ahalmen mugatua duten pertzepzioa ere adierazten du.

Ildo horretan, gazteen parte-hartzea selektiboa da, eta talde txiki batera mugatzen da. Bestalde, gazteen zati handi batek hain agerikoa ez den moduan edo beste erregistro batzuen bidez adierazten du bere konpromisoa. Modu horiek hurrengo ataletan aztertu dira.

Parte-hartzerako eta aktibismorako gazteen praktikak

Jarduera hauetakoren batean parte hartu duzu azken urtean?

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Datuak profilen arabera aztertuta, esaten ahal da gizarte, elkarte edo politika jardueretako parte-hartzea ez dela modu homogeneoan banatzen gazteen artean.

Generoaren arabera, gizonek, sistematikoki, parte-hartze txikiagoa dute emakumeek baino hiru jarduerara mota horietan, batez ere jarduera sozial eta asoziatiboetan. Emakumeek ere ehuneko handiak dituzte parte ez hartzeari dagokionez, baina inplikazio erlatibo handiagoa erakusten dute aztertutako eremu guztietan.



Jaioterria kontuan hartuta, aldeak nabarmenagoak dira. Atzerrian jaiotako pertsonak hiru eremuetan biltzen dituzte parte ez hartzearen mailarik handienak, batez ere elkarteekin eta politikarekin lotutako jardueretan. Aitzitik, Espainian jaio zirenek presentzia erlatibo handiagoa dute gizarte eta politika jardueretan, eta, horrenbestez, berretsi egiten da ohikoagoa dela parte-hartzerako espazio formaletarako joera.

Jarduera hauetakoren batean parte hartu duzu azken urtean?

Hurrengo eskalan, galdera horri "inoiz ez" erantzun diotenen ehunekoa: Inoiz ez. Noiz-bait. Zenbait aldiz. Maiz samar

Oinarria: elkarrizketatuak guztizkoa

Generoaren eta jaioterriaren arabera

"INOIZ EZ" erantzunak	 Gizona	 Emakumea	Espainian jaio ziren	Atzerrian jaio ziren
	Gizarte jarduerak boluntariora, komunitateari laguntzea, auzo ekitaldiak	%68,2	%53,3	%57,0
Elkarte jarduerak elkartean, gazte taldeetan eta GKEetan parte hartzea	%78,4	%67,0	%70,4	%80,7
Jarduera politikoak bilerak, manifestazioak, kanpainak, alderdiak	%73,1	%65,6	%64,7	%84,6
Guztira elkarrizketatuak	353	348	520	181

Norberaren aktibismoak edo jarrerak duen eraginari buruzko galderaren aurrean, gazteek gizarte aldatetan eragiteko duten ahalmenari dagokionez adierazitako pertzepzioa neurritikoa izan da. Hamar gaztetik ia lauk (%39,8) uste dute ekarpen neurritsua egiten ahal dutela, eta %29,0k eragin ahalmena apala dela adierazi dute. Hamarretik bik baino apur bat gehiagok soilik ikusten dute gai beren burua ingurunean aldateta handia edo erabatekoa egiteko (%23,2), eta %8,1ek uste du beren aktibismoak ez duela eragiteko inolako ahalmenik.

Irakurketa horri esker, hobeki ulertzen dira aurrez aztertutako parte-hartzearen emaitzak. Beren eragi-


na mugatua edo tartekoa dela irizten dioten gazteen proportzio handia ikusita, hobeki ulertzen da zergatik den hain murrizta eta, batzuetan, noizbehinkakoa gizarte, elkarte edo politika arloetako parte-hartze eraginkorra, balioetan konpromiso handia aitortu arren.

Esparru orokor horren barruan, gutxiengo esanguratsu bat dago, beren burua aldateta sortzeko gai dela argi eta garbi ikusten duena. Profil horretan biltzen dira eragin handia edo erabatekoa erantzun duten gazteak, eta koherentea da gizarte ekimenean edo ekimen zibikoetan behin eta berriz parte hartzen duten gazteen nukleo aktibo bat egotearekin.

Eraginkortasunaren eta gizarte-aldaketarako gaitasunaren pertzepzioa
Zure ustez, zenbateraino lagundu dezake zure aktibismoak edo jarrerak zure inguruko gizartea aldatzen?

Erantzun sinplea, iradokitakoa. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa

■ Batere ez ■ Gutxi ■ Hein batean ■ Asko ■ Guztiz



Gizarte konpromisoa eta sentsibiltatea oso hedatuta daude, baina ingurunea eraldatzeko gaitasunean den konfiantza aldatu egiten da profil batetik bestera; hala, konfiantza handiagoa da emakumeen artean, eta, neurri txikiagoan, adin nagusiagoko gazteen eta Espainiatik kanpo jaiotakoen artean.

Adinaren arabera, alde txiki bat ikusten da eraginkortasunaren pertzepzioan. 25-30 urteko pertsonen tarteko balorazioak eta balorazio altuak egin ohi dituzte oro har, eta 16-24 urteko gazteen taldean, berriz, apur bat gehiago dira eragin oso handia edo erabatekoa erantzun dutenak. Nolanahi ere, bi tarteetan eragin gaitasuna neurritzkoa den per-


tzepzioa nagusitzen da argi eta garbi, eta horrek aldaketarako zuzeneko motor gisa baino ekarpen partzial gisa pentsatutako aktibismoaren ideia indartzen du.

Alderik argienak generoaren arabera dira. Emakumeek gizarte aldaketa eragiteko duten gaitasunaren pertzepzioa baikorragoa dute, ehuneko handiagoak baitituzte eragin neurritsua, handia eta erabatekoa kategorietan, eta ehuneko txikiagoak eragin gutxienera aurreratu. Gizonen artean, aldiz, ugariagoak dira gutxi edo batere ez erantzunak; horrek, beraz, agerian uzten du aktibismoari dagokionez norberaren eraginkortasuna txikiagoa den pertzepzioa dutela.

7 Aktibismoa eta konpromiso soziala

Jatorriagatiko aldeak neurrizkoak dira, baina esanguratsuak. Atzerrian jaiotakoak sarriago kokatzen dira tarteko posizioetan; hala, haien aktibismoak gizarte aldaketari neurrian laguntzen diola uste dutenen proportzioa nabarmentzen da. Bestalde, Espainian jaiotako pertsonen

banaketa polarizatuagoa da; izan ere, presentzia handiagoa dute bai hautemandako eragina gutxi den posizioetan, bai eragiteko gaitasun handienak diren posizioetan. Bi talde horietan, eragin handiko edo gutzitzaileko pertzepzioek antzeko maila eutsi diete: gutxiengo dira bietan.



Kultura adierazpenek errebeldia, gizarte aldaketa edo aniztasunaren berrespen modura duten funtzioaz galdetzen denean, erantzunek ñabar-duraz beteriko begirada erakusten dute, eta polarizatu gabea. Aukera nagusia neurrizko balorazioa da, gazteen %30,2k aukeratu baitute. Horrenbestez, adierazpen horiek esanahi soziala dutela esaten ahal da, nahiz eta beti ez diren eraldaketarako tresna nagusi.

Aldi berean, gazteen zati handi batek funtzio nabarmena dutela adierazi

dute: %31,7k uste du adierazpen horiek asko edo erabat laguntzen dutela errebeldia, gizarte aldaketarako gogoia edo aberastasun kulturala adierazten. Beste muturrean, %37,0k iritzi dio gaitasun eraldatzaile gutxi dutela, edo batere ez. Beraz, horien benetako eraginari buruz ikuspegi desberdinak daudela ondorioztatzen ahal da.

Banaketa hori bat dator aktibismoaren eta gizarte konpromisoaren blokean behatutako ereduarekin. Bide formaletan den parte-hartze

mugatuaren eta aktibismo tradizionalak duen eraginkortasunaren pertzepzio neurritsuaren aurrean, kultura adierazpenak inplikaziorako tarteko esparrutzat ageri dira, identitateari eta egunerokotasunari lotuago daudenak ekintza antolatuari baino.

Datu horiek indartu egiten dute ideia hau: gazteen konpromisoa ez da parte-hartze formalaren edo aktibismoaren bidez soilik egituratzen. Hau da, adierazpen modu kulturalen bidez ere egituratzen da, gizarte aldaketaren aurrean balioak, jarrerak eta posizionamenduak islatzen baitituzte, intentsitate desberdinekin.

Jaioterriaren arabera, desberdin baloratzen da kultura adierazpenen funtzioa. Atzerrian jaiotako gazteek batez ere tarteko posizioan kokatze-ko joera dute, eta "hein batean" aukeraren ehuneko handiagoa dute (%36), Espainian jaiotakoek baino (%28).

Horrek agerian uzten du garrantzia ematen diotela adierazpen mota horien indar sinboliko eta eraldatzaileari, baina neurrian.


Aitzitik, Espainian jaiotako pertsonen pertzepzio polarizatuagoa dute, maila altuetara bideratua; izan ere, presentzia handiagoa dute "asko" eta "gutziz" kategorietan (%35), atzerrian jaiotakoek presentziarekin (%21) alderatuta. Talde honetan, kultura adierazpenak argiago ageri dira errebel-diarako, gizarte eraldaketarako edo berrespen kulturalerako bide gisa.

Horrez gain, atzerrian jaiotako pertsonen artean, apur bat handiagoa da kultura adierazpen horiek aldaketa gaitasun gutxi edo batere ez dutela uste dutenen proportzioa (%40, "batere ez" eta "gutxi" batuta), Espainian jaiotakoek artean baino (%36); beraz, begirada zuhurragoa den edo ñabardura gehiago egiten diren ideia indartzen da.


Kultura adierazpenak eta aktibismo sinbolikoa


Zure ustez, kultura adierazpenek, hala nola musikak eta janzkerak, zer neurritan adierazten dute errebeldia, gizartea aldatzeko gogoia edo aberastasun kulturala?


Erantzun sinplea, iradokitakoa. Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Jaioterriaren arabera







Azken gogoetak

Askotariko gazteak eta ibilbideak

Azterlanak agerian utzi du Nafarroako gazteak **askotariko bizi, familia eta migrazio ibilbideak izan dituzten** kolektiboa direla, esperientzia, identitate eta harreman modu heterogeneoak eratu dituztenak. Migrazio biografia pertsonalak zein familiakoak egoteak berak agerian uzten du aniztasuna ez dela fenomeno puntual edo marjinal bat, baizik eta egungo gazteen errealitatearen **egiturazko ezaugarri** bat. Bizi jatorri eta ibilbideen aniztasun horrek eragin nabarmena du kidesasuna, identitatea eta bizikidetzaren ulertzeko moduan.

Identitateak eta bizikidetzaren eguneroko bizitzan: aniztasunaren esperientzia

Kulturarteko bizikidetzaren eguneroko esperientziaren parte da, batez ere gizarte eremu zabalenetan eta partekatuenetan, hala nola lagun taldeetan eta hezkuntza edo lan inguruetan. Nolanahi ere, bizikidetzaren hori ez da neurri berean gertatzen eremu guztietan, eta ahultzera jotzen du testuinguru espezifikoagoetan edo sozialki segmentatuta dauden inguruetan. Aniztasuna gurean dago eta aitortu egiten da, baina hurbileko harreman egonkorretan duen eragina edo agerpena ez da beti berdina; horrenbestez, benetako bizikidetzaren dagoela adierazten du, baina **hainbat mailatako harreman sakontasunarekin**.

Harreman ereduak eta bizikidetzak: homofilia, heterofilia eta endogamia

Deskribatutako bizikidetzak dinamikak hobeki ulertzen ahal dira baldin eta gazteen gizarte harremanak egituratzen dituzten harreman ereduak aztertzen badira. Azterlanaren irakurketa bateratuari esker, gazteak aniztasunarekin nola lotzen diren erakusten duten **harreman eredu argiak** identifikatzen ahal dira. **Homofiliaren** logika nagusitzen da harreman hurbilenetan, non loturak antzeko gizarte eta kultura profilak dituzten pertsonekin egiteko joera dagoen. Aldi berean, **heterofilia** modu esanguratsuan ageri da eguneroko espazio zabal eta partekatuetan, hala nola hezkuntza edo lan eremuetan, horietan ohikoa baita aniztasunarekiko harremana. Modu lokalizatuagoan, dinamika **endogamikoak** ikusten dira, bereziki kolektibo minoritarioetan; dinamika horiek, hain zuzen ere, isolamendu jarrerrei baino gehiago, laguntza eta erreferentzia estrategiei erantzuten diete. Oro har, kulturarteko bizikidetzak badago, eta positiboki baloratzen da gainera, baina ez dira beti harreman sare sakonak eta egonkorak sortzen.

Bizikidetzaren mugak eta tentsioak

Bizikidetzak esperientzia horiekin batera, azterlanean ondorioztatu da oraindik ere **diskriminazio eta arbuio egoerak** izaten direla, eta egoera horiek gazteen zati bati eragiten diotela. Oro har ez dirudi esperientzia horiek norberaren irudia higatzen edo apaltzen dutenik, baina eragina

dute ingurune soziala eta besteak hautemateko moduan; hori dela eta, zuhurtziaz, distantziaz edo mesfidantzaz jokaten da haiekin. Diskriminazioa esperientzia zehaztzat aurkezten da, testuinguru eta profil jakin batzuei lotuta, eta askotariko erantzunak sortzen ditu, bai eta aitzin egiteko estrategiak ere; horrez gain, **kulturarteko bizikidetzak prozesuetan oraindik dauden mugak** agerian jartzen ditu.

Erantzukidetasuna eta esku-hartzeko publikoaren zilegitasuna

Nafarroako gazteen iritziz, kulturarteko bizikidetzak ez da soilik norbanakoen jarreretara mugatu behar. Gehienek adierazi dute **eragile kolektibo eta instituzionalen inplikazio handiagoa** behar dela, eta funtzio garrantzitsua ematen diete administrazio publikoei, gobernuei eta tokiko elkarteetara. Planteamendu horrekin batera, babes zabala ematen zaie desberdintasunak murriztera eta aukera berdintasuna bultzatzera bideratutako politikei, eta horrek guztiak indartu egiten du **esku-hartzeko publikoaren zilegitasun soziala**, hainbat testuingurutan bizikidetzari eusteko funtsezko tresna den aldetik.

Gazteen aktibismoa, konpromisoa eta inplikatzeko moduak

Azterlanak erakutsi duenez, gazteek **balio sozial eta zibikoak dituzte**, beren artean oso zabalduta daudenak, eta berdintasun, zuzentasun eta elkartasun printzipioekin bat egiten dute. Nolanahi ere, konpromiso ho-

rrek ez dakar sistematikoki antolatutako jardueretan formalki eta era jarraituan parte hartzea. Inplikazioa **selektiboa da, eta talde txiki batera mugatzen da**; gehiengoak, berriz, noizbehinka, modu sinbolikoan edo egunerokoan adierazten du bere konpromisoa. Norberak gizartea aldatzeko duen gaitasunaren pertzepzio neurritsua eta iritzia emateko bitarteko gisa kultura adierazpenei aitortzen zaien garrantzia direla-eta, aktibismo ez hain tradizionalaren ideia indartzen da, baina horrek ez du esan nahi aktibismorik ez denik.

Ekintza publikorako zeharkako gakoak

Oro har, txostenetik ondorioztatzen denaren arabera, kulturarteko bizikidetzak, konpromiso soziala eta aniztasuna Nafarroako gazteen esperientziaren parte dira, oraindik **mugak, desberdintasunak eta gainditu beharreko erronkak** diren arren. Emaitez erakusten dutenez, esperientzia horiek ez dituzte modu homogeneoan bizi; izan ere, norberaren nahiz familiaren ibilbideek eta gazteen posizio sozialak edota bakoitzaren harreman testuinguruak baldintzatzen dituzte.

Zentzu horretan, azterketak agerian utzi du bizikidetzak, diskriminazio eta konpromiso esperientziek desberdintasun sistematikoak dituztela, bai generoaren arabera, bai jatorriaren arabera, batez ere Espainian jaiotakoan eta atzerrian jaiotakoan artean. Desberdintasun horiek hainbat arlotan islatzen dira: kulturarte-

ko harremanen intentsitate mailan, gizarte ingurunearen pertzepzioan, diskriminazio egoeren bizipenean, eta gizartean inplikatzeke eta parte hartzeko moduetan. Horrenbestez, bereziki garrantzitsua da gazteei zuzendutako politika publikoak diseinatzean bi dimentsio horiek zeharka txertatzea.

Horrez gain, emaitzek agerian utzi dute bereziki garrantzitsua dela gazteen ibilbideen aniztasuna aitortzea eta, eguneroko harremanez harago, kulturarteko harreman sakonagoak eta iraunkoragoak bultzatuko dituzten esparru kolektiboak sortzea. Instituzioen erantzukidetasuna indartzea, elkarguneak hedatzea eta askotariko konpromiso bideak—formalak eta informalak—legitimatzea funtsezkoak dira bizikidetzak inklusiboagoa eta kohesionatuagoa lortzeko.

Glosarioa

Migrazio biografiak

Bizitzan izandako ibilbideak, gizakien mugikortasun prozesuei lotutako esperientziak, erabakiak eta esanahiak biltzen dituztenak. Egiturazko elementuak (baldintza sozioekonomikoak, migrazio politikak...) eta elementu subjektiboak (identitateak, emozioak, sareak...) barne hartzen dituzte, eta tresna analitiko gisa erabiltzen dira, migrazioak dimentsio historikoan eta pertsonalean duen konplexutasuna ulertzeko.

Erreferentziak:

Boccagni, P. (2017). *Migration and the Search for Home*. Palgrave Macmillan.

Sayad, A. (1999). *La doble ausencia: De las ilusiones del emigrado a los padecimientos del inmigrado*. Anthropolos.

Bizikidetz

Prozesu honen bidez, askotariko pertsonak edo taldeek etengabeko interakzioak dituzte espazio komun batean, arau partekatuekin, gaztazken kudeaketa baketsurako mekanismoekin eta elkar aitortzera bideratutako praktikekin. Bizikidetz baterako existentzia pasiboa gainditzea dakar, gizarte kohesioa eta parte hartzea sustatuko dituzten harremanak eraikitzeko.

Erreferentziak:

Walzer, M. (1997). *On Toleration*. Yale University Press.

Flecha, R., & Soler, M. (2013). "Turning difficulties into possibilities: Engaging Roma families and students in school through dialogic learning." *Cambridge Journal of Education*, 43(4).

Homofilia

Pertsonak duten joera antzeko ezaugarriak (jatorri soziala, etnia, hezkuntza maila, zaletasunak edo balioak) dituzten beste batzuekin harreman sozialak izateko, eta horrek eragina du sareen egituraketan, informazioaren hedapenean eta desberdintasun ereduaren taxutzean.

Erreferentziak:

McPherson, M., Smith-Lovin, L., & Cook, J. M. (2001). "Birds of a Feather: Homophily in Social Networks." *Annual Review of Sociology*, 27.

Ramos, M. R., Li, D., Bennett, M. R., Mogra, U., Massey, D. S., & Hewstone, M. (2024). Variety Is the Spice of Life: Diverse Social Networks Are Associated With Social Cohesion and Well-Being. *Psychological Science*, 35(6), 665-680. <https://doi.org/10.1177/09567976241243370> (Original work published 2024)

Heterofilia

Ezaugarri sozial, kultural edo identitario desberdinak dituzten pertsonekin loturak egiteko prestasuna edo joera. Heterofiliak askotari-ko lagunak, berrikuntza eta kulturen arteko trukea bultzatzen ditu, eta gizarte talde desberdinen arteko zubiak eraikitzen ditu.

Erreferentziak:

Rogers, E. M. (2003). *Diffusion of Innovations* (5th ed.). Free Press.

Ruef, M., Aldrich, H. E., & Carter, N. M. (2003). "The Structure of Founding Teams: Homophily, Strong Ties, and Isolation among U.S. Entrepreneurs." *American Sociological Review*, 68(2).

Instituzioen erantzukidetasuna

Printzipio honen arabera, hainbat instituziok edo erakundek —autonomikoak, udaletakoak, hezkuntzakoak, erkidegokoak edo hirugarren sektorekoak— ongizate kolektiborako politikak eta ekintzak diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko erantzukizuna partekatzen dute. Horretarako, beharrezkoak dira koordinazioa, funtzioen banaketa argia, baliabideen osagarritasuna eta helburu komuneko konpromisoa, batez ere gizarte eremuetan, hezkuntzakoetan eta eskubideak babestearekin loturikoetan.

Erreferentziak:

Ostrom, E. (2010). "Polycentric Systems for Coping with Collective Action and Global Environmental Change." *Global Environmental Change*, 20(4).

CEPAL (2020). *La institucionalidad social en América Latina: organizaciones, articulación y capacidades para la gestión*. Naciones Unidas.

**Gazteria eta
migrazio-mugimenduak
Nafarroa 2026**